

**BIGARREN HEZKUNTZARAKO
O R I E N T A B I D E A K**

**ORIENTACIONES PARA LA
EDUCACIÓN SECUNDARIA**



ZER EGIN DEZAKET DBHren ONDOREN?

Batxilergoa, Lanbide Heziketa,

Lanbide Hastapena,

Musika eta Dantza,

Arte Plastikoak eta Diseinua,

Hizkuntzak, Helduen Hezkuntza

eta Kirol Irakaskuntza

2006/2007 Ikasturtea



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

ZER EGIN DEZAKET DBHren ONDOREN?

**Batxilergoa, Lanbide Heziketa,
Lanbide Hastapena, Musika eta Dantza,
Arte Plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak,
Helduen Hezkuntza eta Kirol Irakaskuntza**

2006/2007 ikasturtea

ARGITARATUTAKO IZENBURUAK

1. Ikasleentzako Orientabideak Batxilergoa (1997/98)
2. Aniztasunaren trataera Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan
3. Tutore-Lana Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan
4. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan
5. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren ikasketa-planean zehar lerroak txertatzeko argibideak
6. Ikasleentzako orientabideak; Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapena (1998/99 ikasturtea)
7. Aukerakotasun espazioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan
8. Ikasleentzako orientabideak: Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapena (1999/2000 ikasturtea)
9. Kontseilu Orientatzailea DBH-aren amaieran
10. Ikasleentzako orientabideak: Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapena (2000/2001 ikasturtea)
11. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum Proiektua. Alderdi orokorrak
12. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum Proiektua. Arloak (I)
13. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Curriculum Proiektua. Arloak (II)
14. Proyecto Curricular de Educación Secundaria Obligatoria. Áreas (I)
15. Proyecto Curricular de Educación Secundaria Obligatoria. Áreas (II)
16. Zer egin dezaket DBHren ondoren? Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Lanbide Hastapena, Musika, Dantza, Arte Plastikoak eta Diseinua eta Hizkuntzak. 2001/2002 Ikasturtea
17. Zer egin dezaket DBHren ondoren? Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Lanbide Hastapena, Musika, Dantza, Arte Plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak eta Helduen Hezkuntza. 2002/2003 Ikasturtea
18. Zer egin dezaket DBHren ondoren? Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Lanbide Hastapena, Musika, Dantza, Arte Plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak eta Helduen Hezkuntza. 2003/2004 Ikasturtea
19. Zer egin dezaket DBHren ondoren? Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Lanbide Hastapena, Musika, Dantza, Arte Plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak eta Helduen Hezkuntza. 2005/2006 Ikasturtea

ZER EGIN DEZAKET DBHren ONDOREN?

**Batxilergoa, Lanbide Heziketa,
Lanbide Hastapena, Musika eta Dantza,
Arte Plastikoak eta Diseinua, Hizkuntzak,
Helduen Hezkuntza eta Kirol Irakaskuntza**

2006/2007 ikasturtea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2006

Zer egin dezaket DBHren ondoren? : batxilergoa, lanbide heziketa, lanbide hastapena, musika eta dantza, arte plastikoak eta diseinua, hizkuntzak, helduen hezkuntza eta kirol irakaskuntza : 2006-2007 ikasturtea. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2006

or. ; cm – (Bigarren hezkuntzarako orientabideak = Orientaciones para la educación secundaria ; 20)

Badu, gainera, bere atari eta or. propioekin, testu bera behetikoz gain gaztelaniaz:

“¿Qué puedo hacer después de la ESO?...”

ISBN 84-457-2421-5

1. Orientabide pedagogikoa - Euskadi. 2. Batxilergoa - Euskadi. 3. Lanbide heziketa - Euskadi.

I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua (gaztelania). III. Bilduma

37.048(460.15)

373.5(460.15)

377(460.15)

Argitaraldia:	1.a, 2006ko martxo
Ale-kopurua:	4.000
©	Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.hezkuntza.ej-gv.net
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposaketa:	Composiciones RALI, S. A. Particular de Costa, 8-10, 7. ^a - 48010 Bilbao
Inprimaketa:	Estudios Gráficos ZURE, S. A. Carretera Lutxana-Asua, 24-A Erandio-Goikoa (Bizkaia)
Azala:	Iñaki Martínez de Arbulu
ISBN:	84-457-2421-5
L.G.	BI-774-06

AURKEZPENA

Hezkuntza-sistemak nekez izango du arrakastarik, ikasleei argibide eta orientazio egokia ematen ez bazaie, euren prestakuntza-prozesuan aurrera egin ahala irekitzen zaizkien aukera eta egokiari buruz, prestakuntza-prozesu horretan bertan aurrera egin ahal izateko, egin-eginean ere.

Hori da, hain zuzen ere, esku artean duzun argitalpenaren helburua: ikasleei laguntza ematea, hezkuntza-karreran aukera egokia egin dezaten, DBH amaitu ondoren. Argitalpen honetan, beraz, informazio zabala eskaintzen du Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ikasleak, nork bere burua eta gaitasunak ezagutu ondoren, erabaki egokia eta eraginkorra hartzeko moduan izan daitezten.

Hori dela eta, edizio honetan bildutako informazioak, Araubide Orokorreko ikasketak ez ezik, Araubide Bereziko ikasketak ere hartzen ditu, helduen irakaskuntza eta hizkuntzen irakaskuntza jasotzeaz gain.

Ikasleentzako baliagarri izateaz haratago, nire asmoa eta esperantza da Orientabide Liburuxka honetan jasotako informazio-materiala erabilgarri izango zaiela hezkuntza-munduko gainerako eragileei ere, irakasle-gurasoei alegia. Ikasle eta seme-alabei orientazio eraginkorragoa emateko lagungarri izango al zaie.

TONTXU CAMPOS GRANADOS
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua

AURKIBIDEA

Sarrera	9
Zer aurkituko duzu txosten honetan?	10
Hezkuntza sistemaren antolaketa	11
Dokumentuaren gida	12
1. Batxilergoaren informazioa	13
Zer jakin behar duzu?	14
— Zertarako da Batxilergoak eta zein ezaugarri ditu?	14
— Nola dago antolatuta Batxilergoa?	15
— Batxilergoaren modalitateak	16
— Aukerako jakintzagaiak	20
— Lehentasun koadroa	21
— Aukerako eta berariatzko jakintzagaiak aukeratzekoan kontutan izan beharreko ideia batzuk	22
— Urrutiko Batxilergoa	23
Orain, erabakia hartu behar da... ..	26
2. Lanbide Heziketaren informazioa	27
Zer jakin behar duzu?	28
— Zertarako balio dute Heziketa Zikloek?	28
— Nola daude antolatuta Heziketa Zikloak?	29
— Nor hel daiteke Heziketa Zikloetara?	30
— Sarrera-proba	31
— Zer egin daiteke Heziketa Zikloak bukatuta?	34
Orain, erabakia hartu behar da... ..	35
3. Lanbide Hastapeneko Informazioa	37
Zer jakin behar duzu?	38
— Zer dira eta zertarako balio dute Lanbide Hastapeneko Programek?	38
— Nola daude antolatuta Lanbide Hastapeneko Programak?	39
— Nor hel daiteke Lanbide Hastapeneko Programetara?	40
— Zer dago Lanbide Hastapeneko Programak bukatu ondoren?	40
Orain, erabakia hartu behar da... ..	41
4. Musika eta Dantza Arte-irakaskuntzaren Informazioa	43
Zer jakin behar duzu?	44
— Zer dira eta zertarako balio dute Musika eta Dantza Arte-irakaskuntzak? ..	44
— Zein egitura dute Musika eta Dantza irakaskuntza hauek?	44
— Oinarrizko mailaren egitura: Musika eta Dantza	45
— Maila ertaineko Musika eta Dantza ikasketen egitura	45

—Maila ertaina egin ondoren zer dago?	46
—Musika eta Dantzako Goi mailaren egitura	47
—Musika edo Dantza Eskolan ikastea.	48
5. Arte Plastikoak eta Diseinua Irakaskuntzaren Informazioa	51
Zer jakin behar duzu?	52
—Zer dira eta zertarako balio dute Arte Plastikoak eta Diseinuaren irakaskuntzak?	52
—Nolako egitura dute irakaskuntza hauek?.	53
—Nola daude antolatuta Arte Plastikoak eta Diseinua Irakaskuntzak?.	53
—Nola hel daiteke irakaskuntza honetara?	55
—Sarbide probaren ezaugarriak.	56
—Unibertsitaterako sarbidea Goi Mailako Heziketa Zikloak egin ondoren	56
6. Hizkuntza Irakaskuntzei buruzko Informazioa	57
Zer jakin behar duzu?	58
—Zer dira hizkuntza-irakaskuntza ofizialak?	58
—Nolako egitura dute irakaskuntza hauek?.	58
—Nortzuk irits daiteke Ziklo horietara?	58
—Hizkuntza Eskola Ofizialen etorkizuna	59
7. Helduen hezkuntzei buruzko informazioa	61
Zer jakin behar duzu?	62
—Zer da Helduen Hezkuntza eta zertarako balio du?	62
—Nola antolatzen da Helduen Hezkuntza?	62
—Nor onartuko da Helduen Hezkuntza?	63
—Zer dago Helduen Hezkuntzaren ostean?.	63
8. Kirol irakaskuntzei buruzko informazioa	65
Zer jakin behar duzu?	66
—Zer dira eta zertarako balio dute Kirol Irakaskuntzek	66
—Nolako egitura dute irakaskuntza hauek?.	66
—Nortzuk egin ditzakete irakaskuntza horiek?.	67
Eranskinak	69
1. ERANSKINA: Unibertsitatean Sartzeko Proba.	70
2. ERANSKINA: Unibertsitate-ikasketak hasteko lehenetsunak Sarbide Proban egindako azterbidearen arabera.	72
3. ERANSKINA: Goi Mailako Prestakuntza zikloetan Ikasleak onartzeko irizpideak.	77
4. ERANSKINA: Goi Mailako Heziketa Zikloetatik Unibertsitate Ikasketarako Sarbide Zuzena	84
5. ERANSKINA: Unibertsitaterako ikasketak zuzenean hasteko aukerak Arte Plastiko eta Diseinuaren Goi Mailako Heziketa Zikloak egin ondoren	86

SARRERA

ZER AURKITUKO DUZU TXOSTEN HONETAN?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapa amaitzen ari zara, eta hezkuntza-asmoei buruzko erabaki garrantzitsuak hartu beharko dituzu etorkizunari begira. Koaderno honetan informazioa eta zenbait aholku aurkituko dituzu: lagungarri gerta dakizkizukeelakoan gaude.

Lehenik eta behin, eta etorkizunari begira, hiru aukera dituzu aurrean:


- Zure prestakuntzarekin jarraitu, *Batxilergoaren* bidez, goi-mailako ikasketak egin ahal izateko, bai *Goi Mailako Heziketa Zikloren (GMHZ) bat* bai *unibertsitate-ikasketak*. Halakoetan, Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua beharko duzu, eta Batxilergoa gero.
- Nahi izanez gero, *Erdi Mailako Heziketa Zikloa* has dezakezu, eta horretarako ere, Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua beharko duzu.
- Lanbide Hastapenera* ere jo dezakezu, esandako titulu hori lortzen ez baduzu.

Batxilergoa egin nahi baduzu, gero unibertsitate-ikasketak edota Goi Mailako Heziketa Zikloren (GMHZ) bat egiteko, zer Batxilergo-mota interesatzen zaizun hausnartu eta erabaki beharko duzu; izan ere, hemendik bi urtera zer egin nahi duzun, horren arabera izan beharko du batxilergo-mota. Gauza bera gertatzen da Batxilergoa ikasten ari bazara, hausnartu eta pentsatu egin beharko duzu-eta zer interesatzen eta komeni zaizun, etapa hori bukatzen duzunerako: Goi Mailako Heziketa Zikloren bat (GMHZ), unibertsitate-ikasketak...

Erdi Mailako Heziketa zikloren (EMHZ) bat egin nahi baduzu, hala Lanbide Heziketakoa nola Arte Plastiko eta Diseinukoa, komeni zaizu jakitea eta hausnartzea zein prestakuntza lortuko duzun, zer ziklok erantzuten dien ondoen zure interes, gaitasun eta asmoei; non eta zer baldintzatan ematen den, eta abar.

Lanbide Hastapeneko Programaren bat egin nahi baduzu, gogokoen dituzun lanbide-arloak zeintzuk diren jakin beharko duzu, baita zure inguruan dauden eskaintza ere.

HEZKUNTZA SISTEMAREN ANTOLAKETA



1. grafikoa

Begiratu grafikoari eta azertu bakoitzak eskaintzen dituen aukerak.

- Erabaki aurretik, aukeran duzun ibilbide akademiko bakoitzak dituen ezaugarriak eta eskaintzen dizkizun zeintzuk diren ondo ezagutzea eta horietaz hausnartzea komeni zaizu.
- Ez ahaztu beste irakaskuntza arautu batzuk ere badirela, aurrekoez gain: Musika eta Dantzakoak, (43. or.), Hizkuntzak (57. or.), ...
- Eta gainera, badirela gero zure prestakuntza osatzeko beste era batzuk: Helduen Hezkuntza, Etengabeko Prestakuntza eta Lanerako Prestakuntza,...

DOKUMENTUAREN GIDA

Txosten honetan atal hauek dituzu:

- *Oinarrizko informazioa* jakin beharreko gauzak direla-eta: bai Batxilergoa bai Berariazko Lanbide Heziketa (erdi eta go-mailako Heziketa Zikloak), zein Lanbide Hastapeneko programak. Atal horietan «**ZER JAKIN BEHAR DUZU**» izenburua ikusiko duzu, eta gai bakoitza azaltzeko orrialdeetan, goiko aldean, ikur hau:



- *Erabakia hartzeko* orduan kontuan hartu beharreko *orientabideak* eta *baliabideak* ere azaltzen dira. Atal horietan «**ORAIN, ERABAKIA HARTU BEHAR DA**» izenburua aurkituko duzu, eta azalpen-orrialdeetan, goiko aldean, iruditxo hau ageri da:



- **ERANSKINAK**, informazio zabalago jasotzeko eta aurreko paragrafoan esandakoari osatzeko datorrenak. Atal horietan, azaltzeko orrialdeetan goiko aldean, iruditxo hau ageri da:



Arretaz irakur ezazu eta zeure ikastetxean galde ezazu ulertzen ez duzun edota argitu nahi duzun guztia.

1. BATXILERGOAREN INFORMAZIOA



ZER JAKIN BEHAR DUZU?

Zertarako da Batxilergoak eta zein ezaugarri ditu?

Batxilergoa, Bigarren Hezkuntzaren azken etapa da. *Bi urte* irauten du eta ondoren egingo diren ikasketekin lotura estua du, bai Unibertsitateko ikasketekin, baita Goi Mailako Berariazko Lanbide Heziketarekin ere.

Etaparen honetako ikasketek zertarako balio dute?:

- giza eta adimen heldutasuna lortzen lagunduko duen heziketa emateko, ezagutza eta trebetasun batzuen bidez, hiritar bezala arduratsu eta kritiko izan zaitezten.
- ondoren egin nahi dituzun ikasketetarako oinarri bezala balioko duten ezagutzak emateko.
- zure lehentasun eta aukerak kontutan izanik, zure interesak bideratzeko.

Batxilergoa, etorkizunean egin nahi dituzun ikasketen aukera eta interesek baldintzatutako *heziketa-ibilbidetan* banatzen da. Osagai hauek dituzte:

*Guztientzako jakintzagaiak+ Modalitate jakintzagaiak+
Aukerako jakintzagaia*


Etaparen honetan lau ikasturtetan zehar joan zitezke eskolara; denbora horretan Batxilergoa gainditzen ez baduzu, ikasketa hauek legean azaltzen diren bestelako prozeduren bidez amaitu ditzakezu.

1go mailatik 2.era pasatzeko, gainditu gabeko bi jakintzagai izan ditzakezu gehienez.



Nola dago antolatuta Batxilergoa?

Batxilergoa lau modalitatekoa da, ondoren egingo diren ikasketen aukera anitzei begira, adin horretako gazteen ahalmen eta jarrerari irtenbidea emateko.



2. grafikoa

Hurrengo orrialdeetan 2005-2006 ikasturtean Batxilergoan emango diren jakintzagaiak aurkituko dituzu. Ondorengo ikasturtetan aldaketak egon daitezke.

Lau modalitate hauetaz gain, Dantzako eta Musikako Batxilergoa dago. Honen irakasgai amankomunak, eta Dantzako edo Musikako Ikasketen Ertaineko Maila gaintuz gero, Batxilergoko titulua lor daiteke.



Batxilergoaren modalitateak

Natur eta Osasun Zientzien Batxilergoa

1. Maila	Orduak		2. Maila
GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK			GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK
Gaztelania eta Literatura	3	3	Gaztelania eta Literatura
Euskara eta Literatura	3	3	Euskara eta Literatura
Atzerriko Hizkuntza	3	3	Atzerriko Hizkuntza
Filosofia I	3	4	Historia
Gorputz Hezkuntza	2	3	Filosofia II
Gizarte, Kultura eta Erljioa	2		
Guztira	16	16	Guztira
MODALITATE JAKINTZAGAIAK			MODALITATE JAKINTZAGAIAK
Matematika I			Matematika II (*)
Fisika eta Kimika			Fisika (*)
Biologia eta Geologia			Kimika (*)
Marrazketa Teknikoa I			Biologia (*)
Lurraren eta Ingurugiroaren Zientziak			Marrazketa Teknikoa II
(4 orduko 3 jakintzagai)			1. mailan aukeratu ez direnak
Guztira	12	12	(4 orduko 3 jakintzagai)
Guztira	12	12	Guztira
AUKERAKO JAKINTZAGAIAK			AUKERAKO JAKINTZAGAIAK
(3 orduko jakintzagai bat)			(3 orduko jakintzagai bat)
Guztira	3	3	Guztira
Guztira	3	3	Guztira
GUZTIKO OROKORRA	31	31	GUZTIKO OROKORRA

3a. grafikoa

Oharra: Ikur hau(*) duten 2. mailako irakasgaireren bat hartu ahal izateko, 1. kurtsoan honi dagokion maila baxuagoko irakasgai hartzea ezinbestekoa da. (5. grafikoa).



Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa

1. Maila	Orduak		2. Maila
GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK			GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK
Gaztelania eta Literatura	3	3	Gaztelania eta Literatura
Euskara eta Literatura	3	3	Euskara eta Literatura
Atzerriko Hizkuntza	3	3	Atzerriko Hizkuntza
Filosofia I	3	4	Historia
Gorputz Hezkuntza	2	3	Filosofia II
Gizarte, Kultura eta Erljioa	2		
Guztira	16	16	Guztira
MODALITATE JAKINTZAGAIAK			MODALITATE JAKINTZAGAIAK
Gizarte Zientiei aplikatutako Mat. I Latina I Grekoa I Ekonomia Historia Garaikidea			Gizarte Zientiei aplikatutako Mat. II (*) Latina II (*) Ekonomia eta Enpresa-antolaketa (*) Geografia Grekoa II (*) Artearen Historia Musikaren Historia 1. mailan aukeratu ez direnak (4 orduko 3 jakintzagai)
(4 orduko 3 jakintzagai) Guztira	12	12	Guztira
AUKERAKO JAKINTZAGAIAK			AUKERAKO JAKINTZAGAIAK
(3 orduko jakintzagai bat)			(3 orduko jakintzagai bat)
Guztira	3	3	Guztira
GUZTIKO OROKORRA	31	31	GUZTIKO OROKORRA

3b. grafikoa

Oharra: Ikur hau (*) duten 2. mailako irakasgaireren bat hartu ahal izateko, 1. kurtsoan honi dagokion maila baxuagoko irakasgaia hartzea ezinbestekoa da. (5. grafikoa).



Teknologi Batxilergoa

1. Maila	Orduak		2. Maila
GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK			GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK
Gaztelania eta Literatura	3	3	Gaztelania eta Literatura
Euskara eta Literatura	3	3	Euskara eta Literatura
Atzerriko Hizkuntza	3	3	Atzerriko Hizkuntza
Filosofia I	3	4	Historia
Gorputz Hezkuntza	2	3	Filosofia II
Gizarte, Kultura eta Erljioa	2		
Guztira	16	16	Guztira
MODALITATE JAKINTZAGAIAK			MODALITATE JAKINTZAGAIAK
Industri Teknologia I Matematika I Fisika eta Kimika Marrazketa Teknikoa I (4 orduko 3 jakintzagai)			Industri Teknologia II (*) Matematika II (*) Fisika (*) Elektroteknia (*) Mekanika (*) Marrazketa Teknikoa II (*) 1. mailan aukeratu ez direnak (4 orduko 3 jakintzagai)
Guztira	12	12	Guztira
AUKERAKO JAKINTZAGAIAK			AUKERAKO JAKINTZAGAIAK
(3 orduko jakintzagai bat)			(3 orduko jakintzagai bat)
Guztira	3	3	Guztira
GUZTIKO OROKORRA	31	31	GUZTIKO OROKORRA

3c. grafikoa

Oharra: Ikur hau (*) duten 2. mailako irakasgairen bat hartu ahal izateko, 1. kurtsoan honi dagokion maila baxuagoko irakasgaia hartzea ezinbestekoa da. (5. grafikoa).



Arte Batxilergoa

1. Maila	Orduak		2. Maila
GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK			GUZTIENTZAKO JAKINTZAGAIAK
Gaztelania eta Literatura	3	3	Gaztelania eta Literatura
Euskara eta Literatura	3	3	Euskara eta Literatura
Atzerriko Hizkuntza	3	3	Atzerriko Hizkuntza
Filosofia I	3	4	Historia
Gorputz Hezkuntza	2	3	Filosofia II
Gizarte, Kultura eta Erljioa	2		
Guztira	16	16	Guztira
MODALITATE JAKINTZAGAIAK			MODALITATE JAKINTZAGAIAK
Marrazketa Artistiko I Marrazketa Teknikoa II Bolumena Expresio Grafiko-plastikoaren Teknikak (4 orduko 3 jakintzagai)			Marrazketa Artistiko II (*) Marrazketa Teknikoa II (*) Irudia Diseinuaren Oinarriak Artearen Historia 1. mailan aukeratu ez direnak (4 orduko 3 jakintzagai)
Guztira	12	12	Guztira
AUKERAKO JAKINTZAGAIAK			AUKERAKO JAKINTZAGAIAK
(3 orduko jakintzagai bat)			(3 orduko jakintzagai bat)
Guztira	3	3	Guztira
GUZTIKO OROKORRA	31	31	GUZTIKO OROKORRA

3d. grafikoa

Oharra: Ikur hau (*) duten 2. mailako irakasgairen bat hartu ahal izateko, 1. kurtsoan honi dagokion maila baxuagoko irakasgaia hartzea ezinbestekoa da. (5. grafikoa).



Aukerako jakintzagaiak

Bi ikasturtetan ikasi behar dituzun ikasgaiak dira eta egin nahi duzun hezkuntza-ibilbidearen arabera aukeratu behar dituzu.

Hiru taldetatik aukeratu daitezke:



4. grafikoa

Ikastetxe bakoitzak adieraziko du, aurreko grafikoa kontutan izanik, zein aukerako ikasgaiak emango dituen, bere antolaketa ahalmenen arabera. Horietatik bat lehenengo mailan aukeratu beharko duzu eta beste bat bigarreanean.

(*) Ikus lehenetsun koadroa (5. grafikoa).



Lehentasun koadroa

A zutabeen izaten diren jakintzagaiak matrikulatu edota gainditu izan behar dituzu, B zutabeen agertzen direnak egiteko.

A	B
MATEMATIKA I	MATEMATIKA II
FISIKA ETA KIMIKA	FISIKA
	KIMIKA
	ELEKTROTEKNIA
	MEKANIKA
	ELEKTRONIKA
BIOLOGIA ETA GEOLOGIA	BIOLOGIA
	GEOLOGIA
	GIZA FISILOGIA ETA ANATOMIA
INDUSTRI TEKNOLOGIA I	INDUSTRI TEKNOLOGIA II
	SISTEMA AUTOMATIKOAK
MARRAZKETA TEKNIKOA I	MARRAZKETA TEKNIKOA II
	ORDENADOREZ LAGUNDUTAKO MARRAZKETA ETA DISEINUA
	ERREPRESENTAZIO-SISTEMAK
GIZARTE ZIENTZIEI APLIKATUTAKO MATEMATIKA I	GIZARTE ZIENTZIEI APLIKATUTAKO MATEMATIKA II
LATINA I	LATINA II
GREKOA I	GREKOA II
EKONOMIA	EKONOMIA ETA ENPRESA ANTOLAKETA
MARRAZKETA ARTISTIKOA I	MARRAZKETA ARTISTIKO II
ADIERAZPEN GRAFIKO-PLASTIKOETAKO TEKNIKAK	INFORMATIKA ARTEAREN ARLOAN

5. grafikoa



Aukerako eta berariazko jakintzagaiak aukeratzerakoan kontutan izan beharreko ideia batzuk

1. Etorkizunerako ikasketen interesek (unibertsitatekoek, Lanbide Heziketakoek edo araudi bereziko Heziketa Ziklokoek) baldintzatu behar dute zure heziketa-ibilbidea.

2. Zure ibilbidean ikasiko dituzun ikasgaiak aukeratzerakoan hautabide guztien eskakizunak izan behar dituzu kontuan, eta aukera gehienak irekita izan behar dituzu.

3. Zure interesak oso argi ez badituzu, lehenengo mailan etorkizunerako aukera gehien eskaintzen dizuten ikasgaiak aukeratu.

4. Unibertsitatera jo nahi duzula argi badaukazu sarrera-azterketan sartuko diren ikasgaiak kontuan hartu (1. eranskina).

5. Goi Mailako Lanbide Heziketara jo nahi baduzu, jasotzen diren sarrera lehentasunak kontuan izan (3. eranskina).

6. Bai unibertsitatera bai Lanbide Heziketara jotzeko, 2. kurtsoko gai batzuek ikasteko 1go kurtsuan beheragoko maila ikastea eskatzen dute (5. grafikoa).

7. Kontuan izan bai Erdi Mailako zein Goi Mailako araudi bereziko Heziketa Zikloetan sartzeko zein lehentasun dauden.

8. Bigarren kurtsuan Batxilergo mota aldatu dezakezu; horretarako, beste Batxilergo modalitateko aukerako bezala modalitateko jakintzagai bat gaintu behar duzu lehenengo kurtsuan.

9. Batxilergo mota aldatzen baduzu, titulua lortu ahal izateko mota berrian sartzen diren sei gai ikasi behar dituzu bi kurtsuetan zehar.

10. Unibertsitateko aukera bat baino gehiagoren azterketak egin ditzakezu, horretarako aukeratutako gai guztiei buruzko azterketa egin beharko duzu. (1. eranskina)

Eta orain, askotan kontuan hartzen ez den azalpen bat egingo dizugu: *Zer egin nahi duzun oso argi ez badaukazu, ahalegindu zaitetz gustoko aukera gehien eskaintzen dizun ibilbidera jotzen, bai karrera unibertsitarioen mailan bai eta lanbide-arloetan ere, hau da, zalantzak badituzu ez itxi etorkizunerako biderik.*



Urrutiko Batxilergoa

Batxilergo honen berezitasuna da ikasketak egiteko ikaslea ofizial gisa matrikulatu daitekeela, baina egunero klasera joateko derrigortasunik gabe.

Matrikulatzeko baldintzak

Urrutiko Batxilergorako Institutu batean matrikulatu ahal izateko, ikasleak Batxilergoa egiteko eskatzen diren eskakizun orokorrez gain ondoko baldintzetako bat ere bete behar du, eta matrikula egiterakoan dokumentu bidez egiaztatu behar d(it)u betetzen d(it)uen baldintza(k):

- a) 18 urte izatea edo ikasturte horretan zehar betetzea. Ondorio hauetarako, ikasturtea ekainaren 30ean bukatzen dela kontsideratzen da.
- b) Espetxean sartuta egotea.
- c) Zuzeneko hezkuntzako zentroetara joan ezin izatea, hori eragozten dion gaixotasun edo ezintasunen bat duelako.
- d) Zuzeneko hezkuntzako zentroetara joan ezin izatea, hori eragozten dion lan-jardueraren bat betetzen duelako.
- e) Batxilergoarekin batera beste ikasketa ofizial batzuk egitea, eta horrek zuzeneko hezkuntzako Batxilergo zentro batera erregulariki joatea eragoztekoa.
- f) Kirol-jarduera bat egitea, dagokion Federazioak justifikatu beharrekoa, eta entrenamendu-orduek zuzeneko hezkuntzako zentro batera erregulariki joatea eragoztekoa.

Halaber, Hezkuntzako lurralde ordezkariak Urrutiko Batxilergo Institutu batean matrikulatzeko baimena eman diezaiekete arestian aipatutako baldintzetako bat ere betetzen ez duten pertsonen, baldin eta pertsona horien egoera berezia dela-eta ikastetxe horietan matrikulatzea komeni bada.

Matrikula egiteko epea irailaren 1etik abenduaren 31ra arte da. Egun horretatik aurrera, Urrutiko Batxilergorako Institutuek egoera berezietan bakarrik matrikulatu ditzakete ikasle berriak.

Urrutiko Batxilergorako Institutuetako ikasleek matrikula ikastaro osorako zein irakasgai bakoitzerako egin dezakete. Bigarren kasu horretan gehiezin hamabi irakasgai aukeratu ditzakete. Ikasleok ez dute Batxilergoa bukatzeko eperik, eta ez dute mailaz gora egiteko gutxieneko irakasgai kopururik gainditu behar; aldiz, irakasgaiak banan-banan gaindi ditzakete, eta ez dute inoiz aurretik gaindituta duten irakasgairik errepikatu behar.



Batxilergoko ikasketak urrutikoa ez den beste hezkuntza-sistema batean hasi dituzten ikasleak Urrutiko Batxilergorako Institutu batean sartzen badira, ez dituzte gaindituta dituzten irakasgaiak errepikatu behar. Kasu horretan ikaslearen ikasketa-espeditentean agertzen den azken kalifikazioa izaten da kontuan.

Irakasgaiak irakastea

Urrutiko Batxilergorako Institutuetan irakasgaiak talde-tutoretzetan eta banakako tutoretzetan irakasten dira. Talde-tutoretzak 60 minutuko klaseak dira eta bertan irakasleek programako gai bakoitzaren oinarriak azalduko dituzte, gai horiek ikasteko egin beharreko urratsak adieraziko dituzte, ariketak egingo dituzte, ikasleen zalantza orokorrak argituko dituzte eta, oro har, ikasleek ikasgaia ongi beregana dezaten egoki deritzen jarduera guztiak egingo dituzte, klaustroak ezarritako irizpideei jarraituz.

Urrutiko Batxilergorako Institutuek ikasle-talde bakoitzari astean ordu beteko talde-tutoretza ematen diote ikastetxeak ematen dituen irakasgai guztietan. Tutoretza hori goiz zein arratsaldeko txandetan errepikatzen da. Goizeko eta arratsaldeko tutoretzek antzeko edukia dute, beraz, ikasleak, bere egoeraren arabera, batera zein bestera joatea aukeratu dezake.

Ikasleak talde-tutoretzara joatea borondatezkoa da.


Talde-tutoretzez aparte, Urrutiko Batxilergorako Institutuek banakako tutoretzak ere eskaintzen dizkiete ikasleei. Banakako tutoretzetan irakasleak ikasleen eskura daude irakasgai bati buruz dituzten zalantzak eta banakako kontsultak erantzuteko. Kontsultak ikastetxean bertaratuz egin daitezke edo, bestela, telefonoz, faxez, e-mailez, postaz edo Institutuak ezartzen duen bes-telako sistema baten bidez ere bai.

Ebaluazioko proba guztiak bertaratuta eta idatziz egin behar dira. Proba horietako batera aurkezteko, ikasleak derrigorrez NAN, pasaportea edo balio-kidea den beste agiriren bat erakutsi behar du.

Azterketara bertaratutako pertsonen nortasunarekin lotutako edozein irregulartasunik bada, pertsona horri administrazio-espeditentea zabalduko zaio, baita dagokion zigorra ezarri ere.



Batxilergoak



6. grafikoa




ORAIN, ERABAKIA HARTU BEHAR DA...

Batxilergoak ahalbide anitzak ditu zure interesen, ahalmenen, etorkizunera-
rako dituzun itxaropenen etabarren arabera aukera egin dezazun. Egoera ho-
rretan ondorengo aukerak egin beharko dituzu:

- hezkuntza-etapa hau egin nahi duzun ala ez;
- zein modalitate interesatzen zaizun;
- zein gai ikasiko dituzun.

Ondorengo grafikoa irakurri eta aurkezten zaizkizun galderei erantzun.



7. grafikoa

2. LANBIDE HEZIKETAREN INFORMAZIOA




ZER JAKIN BEHAR DUZU?

Zertarako balio dute Heziketa Zikloek?

Heziketa Zikloen helburu behinena pertsonak lan-munduan sartu edo lan-mundura itzuli ahal izateko bidea erraztea da; horregatik, ziklo hauetako prestakuntza lan-esparrura lerratzen da. Prestakuntza hori lortzeko, DBHn edo LOGSE Batxilerrean lortutako *Oinarrizko Lanbide Heziketa* osatu egiten da, ekoizpen-mundurako beharrezko Prestakuntza lortzeko, *Berariazko Lanbide Heziketaren* bidez. Ziklo horiei dagozkien lanbide tituluek lanerako prestakuntza eta gaitasunak egiaztatzen dituzte.

Beste era batera esanda, *Berariazko Lanbide Heziketaren* lanbide -profil jakin bati dagokion lan-gaitasuna eskuratzen da; gaitasun hori lanbidean aritzeko beharrezkoa izango da. Lanbide- gaitasuna hau da: lanerako beharrezkoak diren ezagutza, trebetasun eta jarreraren multzoa.

Erdiko Mailako Heziketa Zikloa gaindituta, Teknikari titulua lortzen da; Goi Mailako Heziketa Zikloa gaindituz, berriz, Goi Mailako Teknikari titulua.



8. grafikoa



Heziketa Zikloetan lan-esparru ezberdinetarako prestakuntza lortzen da, eta esparru ezberdinen arabera, Heziketa Zikloak lanbide-arlotan sailkatzen dira. Arlo horiek ekonomi jarduerako ekoizpen-sektore eta zerbitzuetako sektorerik garrantzitsuenak hartzen dituzte euren baitan.

Nola daude antolatuta Heziketa Zikloak?

Heziketa Zikloen barruan unitate ezberdinez osatutako lanbide-moduluak daude. Lanbide-modulu horien bidez, ikasleek lanpostuetan bete beharreko funtzioei dagozkien ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak lantzen dituzte. Heziketa Zikloa, hortaz, lanbide-moduluaren arabera da, eta zikloen iraupena ere bai: urte eta erdi eta bi urte bitartekoa. Hona hemen adibide pare bat:

ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA ARLOA		OSTALARITZA ETA TURISMO ARLOA	
KONTSUMORAKO EKIPO ELEKTRONIKOAK (GMHZ)		SUKALDARITZA (GMHZ)	
LANBIDE MODULUAK	ORDUAK	LANBIDE MODULUAK	ORDUAK
— Soinu-ekipoak	186	— Sukaldaritzako prozesuak	380
— Irudi-ekipoak	210	— Gozogintzako eta okintzako prozesuak	150
— Informazio-sistema elektronikoak	120	— Elikagaien eta edarien prozesuak	350
— Ekipo mikroinformatikoak eta telekomunikabide-terminalak	210	— Sukaldaritzako egoitzen administrazioa	170
— Administrazioa, kudeaketa eta merkaturatzea enpresa txikian	90	— Marketing-a sukaldaritzan	130
— Lan-taldeko harremanak	60	— Atzerriko hizkuntza	160
— Kalitatea	64	— Lan-giroko harremanak (LGH)	60
— Elektronika orokorra	240	— Lan-prestakuntza-orientabidea (LPO)	60
— Elektronika digitala eta mikroprogramagarria	240	— Kalitatea eta etengabeko hobekuntza (KEH)	40
— Oinarriko instalazioak	120	— Lantokiko prestakuntza (LP)	500
— Lan-prestakuntza-orientabidea (LPO)	60		
— Lantokiko prestakuntza (LP)	400		
GUZTIRA	2.000	GUZTIRA	2.000

9. grafikoa



Moduluen artean azpimarratzekoa da *lantokiko prestakuntza*: lanbide-tituluarekin zerikusia duten jardueretan aritzen dira ikasleak, aukeratutako sektoreko enpreetan; ziklo osoak irauten duen denboraren %20 edo 25a ematen dute horretan; ikastetxean ikasitako ezagutza eta trebetasunez baliatu eta horiek areagotu egiten dituzte (modulu hau zikloaren bukaera-aldera egiten da eskuarki).

Heziketa-zikloa gainditu eta lanbide-titulua lortzeko, beharrezkoa da zikloa osatzen duten modulu guztiak gainditzea.

Nor hel daiteke Heziketa Zikloetara?

Heziketa Zikloaren aurretik jasotako prestakuntzaren arabera, zikloa aukera dezakete ikasleek: *Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua*ren bidez, Erdi Mailako Heziketa Ziklora heltzen da; *LOGSE Batxilergo* titulua bidez, berriz, Goi Mailako Heziketa Ziklora.

Zikloetako %25 plaza gorde egiten dira lehen aipaturiko tituluren bat izaki ez baina zikloan sartzeko froga gainditzen dutenentzat; sarbide-froga egin ahal izateko ikasleek baldintza hauetakoren bat bete behar dute:

— *Erdi Mailako Heziketa Zikloan sartzeko:*

- Eskaera egiten den urtean 18 urte beteak izatea, edo
- Urtebeteko lan-esperientzia egiaztatzea, edo
- Gizarte-garantiako programa bat gainditua izatea.

Froga bakarra izango da Erdi Mailako Heziketa Ziklo guztietarako, eta DBHko helburu orokorretan ezarritako gaitasunak izango dira frogarako erreferentzia. Frogaren edukiak bi ataletan banatuko dira: eduki soziokulturalak (Hizkuntza eta Gizarte arloak) eta zientifiko-teknologikoak (Matematika, Natur-Zientziak eta Teknologia).

— *Goi Mailako Heziketa Ziklora heltzeko:*

- Froga egiteko unean 20 urte beteak izatea.
- 18 urte beteak izatea eta dagokion espezialitatearen Teknikariaren titulua izatea.⁽¹⁾

(1) Teknikari-titulua jabe direla egiaztatuta eta araudi bidez araututako lanbide-talde bereko edo berdintsuko Goi Mailako prestakuntza-ziklo batean parte hartu nahi dutenek, derri-gorrezko betekizun izango dute 18 urte izatea azterketa egin ahal izateko.



Goi Mailako Heziketa Zikloko sarreraprobak bi zati izango ditu:

- a) Zati orokorra. Zati horretan LOGSE Batxilergoaren helburu nagusietan zehaztutako edukiak izango dira aztergai. Hiru alor hauek ebaluatuko dira: Hizkuntza, Euskara eta Atzerriko Hizkuntza; eta Matematika.
- b) Zati espezifikoak. Beste zati horretan, berriz, lanbide-eremu zehatz bati dagozkion gaitasunak egiaztatu nahi dira. Hori dela eta, Batxilergoetako irakasgaiak sartu dira, hala espezialitatekoak nola aukerazkoak.

Bada, lanbideak hiru taldetan sailkatu dira, eta lanbide-talde bakoitzari batxilergoko sei ikasgai egokitu zaizkio.

Hortaz, zati espezifiko hau egiteko, ikasleak honako hau egin beharko du: ikasi nahi duen zikloarekin bat datorren lanbide-taldea hautatu eta aukeran ematen zaizkion sei ikasgaietatik bi hartu.



Lanbide-taldeen sailkapena


«A» AUKERA	
LANBIDE-TALDEAK	BATXILERGOKO IRAKASGAIK
<ul style="list-style-type: none">– ADMINISTRAZIOA– MERKATARITZA ETA MARKETINGA– INFORMATIKA– OSTALARITZA ETA TURISMOA– GIZARTE- ETA KULTURA-ALORREKO ZERBITZUAK	<ul style="list-style-type: none">– GIZARTE-ZIENTZI APLIKATUTAKO MATEMATIKA II– EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKUNTZA– ATZERRIKO HIZKUNTZA– INFORMATIKA– ZUZENBIDEA– ADMINISTRATZE- ETA KUDEATZE-PROZESUAK.

«B» AUKERA	
LANBIDE-TALDEAK	BATXILERGOKO IRAKASGAIK
<ul style="list-style-type: none">– ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA– FABRIKATZE MEKANIKOA– MANTENTZE-LANAK ETA PRODUKZIOAREKIN LOTURIKO ZERBITZUAK– ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA– ZURA ETA ALTZARIAK– ITSAS- ETA ARRANTZA-JARDUERAK (Uretako produkzioaren zikloa izan ezik)– ARTE GRAFIKOAK– BEREZ DABILTZAN IBILGAILUEN MANTENIMENDUA– JANTZIGINTZA ETA LARRUAK– JANTZIAK	<ul style="list-style-type: none">– ELEKTRONIKA– FABRIKATZE MEKANIKOKO TEKNIKAK– MEKANIKA– MARRAZKETA TEKNIKOA– INDUSTRIA-TEKNOLOGIA II– ELEKTROTEKNIA


«C» AUKERA	
LANBIDE-TALDEAK	BATXILERGOKO IRAKASGAIK
<ul style="list-style-type: none">– KIMIKA– IRUDIA ETA SOINUA– ITSAS- ETA ARRANTZA-JARDUERAK (Uretako produkzioaren Zikloa bakarrik)– NEKAZARITZA-JARDUERAK– ELIKAGAIEN INDUSTRIAK– OSASUNA– BEIRA ETA KERAMIKA– NORBERE IRUDIA– JARDUERA FISIKOAK	<ul style="list-style-type: none">– GIZA FISILOGIA ETA GIZA ANATOMIA– INDUSTRIA-TEKNOLOGIA II– LUR-ZIENTZIAK ETA INGURUMEN-ZIENTZIAK– FISIKA– KIMIKA– BIOLOGIA



ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLORA SARTZEA



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLORA SARTZEA



10. grafikoa



Zer egin daiteke Heziketa Zikloak bukatuta?

Heziketa Zikloa amaitzen duten ikasleen lehen aukera lan-munduan murgiltzea da, nor bere prestakuntzaren arabera sektore edo lanbidean.

Lanean sartzea errazteko *Lanbide Gaitasunen Txartela* sortu da; txartel horrek Heziketa Zikloan lortutako lanbide-gaitasuna aitortu eta egiaztatzen du.

Hala ere, Hezkuntza Sistemari jarraitzea erabakiko bazenu, ikasten jarraitu ahal izango zenuke, Batxilergo ikasten Erdi Mailako Heziketa Zikloa egin baduzu, eta unibertsitatean Goi Mailako Heziketa Zikloa egin baduzu.

Heziketa Zikloak ez dira Hezkuntza Sistematik datozen ikasleei bakarrik zuzenduak; lanerako prestakuntza hobetu nahi duten langileek ere -lanean ari direnek nahiz ari ez direnek- har dezakete parte. Horregatik, Heziketa Zikloek lanbidean gora egiteko bidea errazten dute, baita langileen prestakuntza osatzeko hainbat heziketajarduera sustatzen ere, *Arautu gabeko* ildotik.




ORAIN, ERABAKIA HARTU BEHAR DA...

Berariazko Lanbide Heziketan hainbat aukera dituzu zure interesak, proiektuak, ahalmenak eta abar kontuan hartuta bat hautatzeko. Beraz, erabaki egin beharko duzu:

- Berariazko Lanbide Heziketa ikasi nahi duzun ala ez.
- Berariazko Heziketa mota (Erdi Mailakoa edo Goi Mailakoa).
- zure gogoko Heziketa Zikloa.

Irakur ezazu ondorengo grafikoa eta erantzun galderak.



11. grafikoa

3. LANBIDE HASTAPENEKO INFORMAZIOA



ZER JAKIN BEHAR DUZU?

Zer dira eta zertarako balio dute Lanbide Hastapeneko Programek?

Gure Autonomi Erkidegoan *Lanbide Hastapenak* izenarekin ezagutzen ditugun Programek lanbide-prestakuntzaren 1go mailako lanbidetarako prestatzen zaituzte, eta era berean, zure aurreko etapan lortu duzun oinarritzko prestakuntza (LH, IEE, BBB, DBH) sendotzen dute; horrela zure ikasketak jarraitu ahal izango dituzu edozein irakaskuntza arautuan, eta bereiziki, Lanbide Heziketaren Erdi Mailako Heziketa Zikloetan.

Hona hemen programa hauek prestatzen dituzten lanbideen adibide batzuk:

Ostalaritza eta Turismo Arloa	Ibilgailu Autopropultsatuen Mantenimendu Arloa
<ul style="list-style-type: none">• Sukaldeko laguntzailea• Taberna-jatetxeko zerbitzu laguntzailea• Gozogintza laguntzailea• Alojamentu, garbitegi eta lentzeria laguntzailea	<ul style="list-style-type: none">• Karrozeri langilea• Ibilgailuen konponketarako langilea

Lanbide Hastapenerako Programen helburu nagusiak hauek dira:

1. Zure heldutasun pertsonala bultzatu, kultura anitzeko gizarte demokratiko batean pertsona bezala hazi zaitez.
2. Lan profesional baten teknika eta ezagutzak menderatzen lagundu bizitza aktiboan sartu zaitez.
3. Hezkuntza-sisteman berriro sartzeko prestatu, bereiziki Lanbide Heziketaren Erdi Mailako Heziketa Zikloetarako egiten den frogaren bidez.



Nola daude antolatuta Lanbide Hastapeneko Programak?

Lanbide-hastapeneko programak bi ikasturtetan zehar eramaten dira aurrera, eta bigarrenean, gainera, lantoki batzuetan praktikak egiten dira. Ondorengo prestakuntzako blokeak izaten dituzte lanbide-hastapeneko programek:

1. *Oinarrizko Lanbide-teknikak*: dena delako lanbideko ezagupen teknikoak eskaintzen ditu; helburua lanpostu jakin batean aritzeko beharrezkoa den gaitasun profesionala eskuratzea da. 1. mailako gaitasun profesionala eskatzen duten lanbideak dira.
2. *Oinarrizko prestakuntza*: Ondoren zehazten diren jakintzak berreskuratu eta sendotzeko balio du: komunikatzeko gaitasuna sendotzeko balio dutenak, kalkuluak egiteko eta arazoak konpontzeko balio dutenak, komunikazioko eta informazioko teknologiak erabiltzeko balio dutenak, enpresek inguruan duten ekonomia-sarea ulertzeko balio dutenak, erabakiak hartzeko eta taldelanean aritzeko balio dutenak... Lanbiderako gaitasuna lortzeko edo ikasten jarraitzeko ezinbestekoak diren ezagupenak barneratu eta sendotzea da helburua. Ikasten jarraitzekotan, bereziki Lanbide Heziketako erdi mailako heziketa-zikloetan sartzeko proben bidez egingo da.
3. *Tutoretza eta orientazioa*: helburu hauek dituzte: pertsonari garatzen, integratzen eta gizartean parte hartzen laguntzea, gizartean aritzeko trebetasunak eskuratzen laguntzea, eta kasuan kasuko lan-arloko lanbaldintzen inguruko legeriaren berri ematea, ezaguna izan dakien.

Ordutegia

Astean, gutxi gorabehera, 30 orduz jardungo da eta honela banatuko da:

— Oinarrizko Lanbide-teknikak: 14-17 ordu astean.

— Oinarrizko Prestakuntza: 13-16 ordu astean.

Tutoretza eta orientazioa prestakuntza guztian etengabe eta non nahi gartuko dira.



Nor hel daiteke Lanbide Hastapeneko Programetara?


Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza etapako helburuak lortu gabe, hau da, Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortu gabe utzi duen 16 urtetik gorako edozein gazte.

Zer dago Lanbide Hastapeneko Programak bukatu ondoren?

Lanbide Hastapenerako Programa bukatzen duten ikasleen lehenengo aukera lan munduan sartzea da, lana egiteko prestatu diren arloan.

Sarrera hau errazteko, Lanbide Hastapenerako Programa amaitzean ziurtagiri bat jasoko dute; bertan azalduko dira lortu dituzten gaitasunak.

Hala ere, utzitako ikasketekin jarraitu nahi badute Lanbide Heziketaren Erdi Mailako Heziketa Zikloen bidez lortu dezakete, sarrera froga gainditzen badute.



12. grafikoa




ORAIN, ERABAKIA HARTU BEHAR DA...

Lanbide perfil ugari aurkituko dituzu Lanbide Hastapenerako programe-tan eta horien artean aukeratu behar duzu zeure interesen, gaitasunen, etorki-zunerako ikuspegiaren arabera. Egoera horretan aukeratu behar duzu:

- ikasketa hauekin jarraitu nahi duzun ala ez;
- gehien interesatzen zaizun lanbide-perfila.

Ondorengo grafikoa irakurri eta azaltzen diren galderari erantzun.



13. grafikoa

**4. MUSIKA ETA DANTZA
ARTE IRAKASKUNTZAREN
INFORMAZIOA**



ZER JAKIN BEHAR DUZU?

Zer dira eta zertarako balio dute Musika eta Dantza Arte Irakaskuntzak?

Musika eta dantzako arte-irakaskuntzak era berezian antolatzen dira LOGSEn zehaztutako hizkuntza-sisteman eta bi helburu nagusi ditu: kalitatezko prestakuntza eskaintzea eta etorkizunean izango diren musikako eta dantzako profesionalak prestatzea.

Ikasketok ez dira derrigorrezko hezkuntza sisteman sartzen, eta kontserbatorio, ikastetxe baimendu edo musika-eskoletan egin daitezke norberaren nahien eta interesen arabera.

Musika eta dantzaren irakaskuntza arautua profesionalak izan nahi dute-entzat pentsatuta dago, beraz, ikasketok lan munduan aritzeko prestakuntza eskaini nahi dute. Ikasketa horiek kontserbatorio edo hezkuntza administrazioak baimendutako ikastetxeetan egiten dira eta titulazio ofiziala dute. Laburbilduz, gaitasun eta borondate erakusten duten ikasleei zuzenduta daude, ir-motasuna eta bokazioa eskatzen baitute.

Zale moduan jardun nahi dutenek musika eskoletan ikas ditzakete musika eta dantza, *egitura eta edukien aldetik irakaskuntza ez arautuaren bidez*.

Zein egitura dute Musika eta Dantza Irakaskuntza hauek?

	Kontserbatorioa eta Ikastetxe baimendua	Musika eta Dantza Eskola
Irakaskuntza mota	Irakaskuntza arautua	Irakaskuntza ez arautua
Helburua	Profesionalak prestatzea	Zaleak sortzea eta bokazio eta gaitasunak aurkitzea
Titulazioa	Lanbide-akademiko titulua	Diploma, ziurtagiriak

Kontserbatorio edo Ikastetxe baimenduetan musika eta dantza ikasteak eramango zaitu mundu profesionalean aritzera, irakaskuntza arlo horietako lan-munduari egokitzen baitzaio. Zentro horietan hiru mailatan sailkatuta dago musika eta dantzaren irakaskuntza



Musika eta dantzako irakaskuntzak

Mailak	Kurtsoa ziklo	Titulazioa
Oinarrizko Maila	Lau kurtso	Ziurtagiria
Erdiko Maila	Bi kurtsoetako hiru ziklo	Dagokion irakaskuntzaren Lanbide titulua
Goiko Maila	Lau edo bost kurtsoetako ziklo bat	Dagokion irakaskuntzaren Goi Mailako titulua (lizentziatu titularen baliokidea)

Oinarrizko mailaren egitura: Musika eta Dantza

Musika arloan ikasleek lau kurtso egingo dituzte. Horien ikasgaiak honako hauek dira: instrumentua, musika-hezkuntza eta korua. Hirugarren kurtsoan Instrumentu Praktika izango dute, horren bidez ikasleak taldean jotzen hasiko dira.

Dantza arloan, aldiz, mailak 4 dira; eta horietan ikasleek bi ikasgai izango dituzte: Dantza Klasikoa eta Musika.

Oinarrizko Maila gaindituz gero, maila hori egin duenari *ziurtagiria* emango zaio.

Zein da sarbidea?

Proba batzuk egin behar dira oinarrizko mailara sartzeko ikasketak egingo diren zentroan bertan. Proba horiek gainditzeko gutxienezko maila eskatu-ko da entzumen, erritmo, gaitasun eta heldutasunean. Adinari dagokionez gutxienez zortzi urte eduki behar dira eta hamalau gehienez.

Maila ertaineko Musika eta Dantza ikasketen egitura

Maila ertaina hiru ziklotan egituratuta dago, bi urtetakoa bakoitza: lehen zikloa, bigarren zikloa eta hirugarren zikloa. Ziklo horiek DBHko bi zikloekin edo Batxilergoarekin batera egin daitezke.

Musikako Erdi-mailak hainbat espezialitate ditu: Kantua eta zenbait instrumentu, bai orkestrakoak bai orkestrarako ez direnak.



Dantzako Erdi-mailak ondoko hiru espezialitateak ditu: Dantza Klasikoa, Dantza Garaikidea eta Dantza Espainiarra.

Musikako edo Dantzako erdi-maila gainditzen duten ikasleek egindako espezialitateko *Titulu Profesionala* aterako dute. Gainera, Batxilergoko irakasgai komunak gaindituz gero, *Batxiler Titulua* ere atera dezakete.

Zein da sarbidea?

Maila ertaineko ikasketak egin ahal izateko ez da derrigorrezkoa oinarriko maila egina izatea; nahikoa da ziklo bakoitzean jarritako sarbide proba gainditzeko ezagutzak erakustea eta musika-ikasketei etekinak ateratzeko ahalmena izatea, eta berdin dio ezagutza horiek non lortu diren.

Berezitasun bakoitzak bere ikasgaiak eta bere minutuak ditu, baina alde handiegirik izan gabe.

Maila ertaina egin ondoren zer dago?

Profesional munduko musikarekin zerikusia duten ikasketak egiten jarraitu nahi baduzu, honako hau ikas dezakezu:

- *Irudi eta Soinuaren modulu profesionala* (Komunikazioko Goi Teknikaria, Irudi eta Soinua).
- *Magisteritza, musika berezitasuna* (musika berezitasuneko lehen hezkuntzako maisu/maistra titulua lortzeko).
- *Musikaren zientziak eta historia* (bigarren zikloko ikasketak baino ez dira, musikaren zientzietan eta historian lizentziatu-titulua lortzeko).
- *Komunikazio Zientziak, Ikus-entzunezko Komunikazioa espezialitatea* (Ikus-entzunezko Komunikazio Lizentziadun titulua).
- *Musikako Goi-maila* (Musikako goi-titulua, unibertsitateko lizentziaren parekoa).

Dantza profesionalarekin zerikusia duten ikasketak egiten jarraitzeko, ondokoa ikas dezakezu:

- *Dantzako Goi-maila* (Musikako goi-titulua, unibertsitateko lizentziaren parekoa).



Musika eta Dantzako Goi mailaren egitura

Musika-irakaskuntzen goi-mailak ziklo bakarra du, lau edo bost kurtsokoa, espezialitateen arabera.

Musikako goi-maila osatzen duten *espezialitateak* lau eremu handitan banatzen dira: Konposizioa, Interpretazioa (Erdi-mailan dauden Kantuaz eta instrumentu-espezialitateez gain, ondokoak ere badaude: Jazz, Koru Zuzendaritza eta Orkestra Zuzendaritza), Musikologia eta Pedagogia (Musika-hizkuntzaren eta -hezkuntzaren Pedagogia, eta Kantuaren eta instrumentu-espezialitateen Pedagogia).

Dantzako goi-mailak lau urteko ziklo bakarra du. Hona maila honetako *espezialitateak*:

- Dantzaren Pedagogia.
- Koreografia eta Dantza Interpretatzeko Teknikak.

Musika- edo Dantza-irakaskuntzen goi-maila gainditzen dutenek dagoion espezialitateko Goi-mailako Titulua izango dute, unibertsitate-lizentziadunaren parekoa, ondorio guztietarako.

Ikasketa horiek amaitzerakoan dauden *irtenbide profesionalak* asko dira, ugari.

Bakarkako interpretari edo dantzari aritzeaz gain, ondokoak har ditzakezu lanbide edo lantegi: orkestrak, musika-etxeak, antzokiak, entzutegi edo auditorioak, diskoetxeak, musika kudeatzeko enpresak, kultura-fundazioak, prentsa, irratia, telebista, publizitatea, grabazio-estudioak, argitaletxe espezializatuak, musika-informaziorako zentroak, artxiboak, liburutegiak, animazio soziokulturala, administrazio publikoa eta irakaskuntza, ikerkuntza eta arte-sorkuntza.

Nola sartu?

Ondokoak bete behar dira goi-mailara iristeko: Batxilergo titulua izatea, erdi-mailaren hirugarren zikloari dagozkion ikasketak gaindituta izatea eta sarbide-proba gainditzea. Nolanahi ere, goian adierazitako betebeharrak akademikoetako bat edo biak bete gabe ere sartzeko aukera dago, sarbide-proba gaindituz gero, eta berariazko ariketa baten bidez egiaztatuz gero erdi-mailari dagozkion ezagutzak eta gaitasunak, baita eskatutako espezialitatea atarramentu onez egiteko behar diren berariazko trebetasunak ere.



Musika edo Dantza Eskolan ikastea

Musika edo Dantza-eskoletako ikasketak adin guztietako ikasleei musika-heziketa ematen saiatzen dira. Musika heziketa hori ez dago programa edo epe batzuei lotuta (kurtsoak maila bakoitzeko).

Beraz, zer dira musika- eta dantza-eskolak:

- Prestatzeko eta kultura zabaltzeko zentroak.
- Musika edo Dantza-talde amateur batzuen abiapuntua.
- Profesionalen harrobia.

Ikasketa hauek adin guztietako pertsonak egin ditzakete, eta ez dute, inolaz ere, akademiko- eta lanbide-balioetasunik izango. Ikasketa horien ikasketa-planak ez ditu Hezkuntza Administrazioak arautu.

Irakaskuntza-eskaintza

— *Ikasketen antolamendua*

- *1. maila edo hasierakoa*: 4tik 7 urtera. Haurraren nortasunaren behar bezalako garapena bultza-tuko du, irakaslearekin eta beste haurrekin, dantza- eta musika-jarduera dela-eta, duen harremanarengatik.
- *2. maila edo hastapena*. Maila honetan instrumentuak edo dantzak nortasuna eta sentsibiltatea adierazi eta garatuko du. Lortu beharreko trebetasuna kontserbatorioko oinarrizko maila gainditzen duen ikaslearenak izango dira.
- *3. maila edo finkatzea*. Ikasleak trebetasuna lortuko du, kontserbatorioko maila ertaineko 2. zikloa gainditzen duen ikaslearen parekoa, hain zuzen.
- *4. maila edo lehentasunezko jarduera*. Trebetasun-muga bakarra, interesak, eskaintzen zaion denborak eta gaitasunak jartzen dute. Gaitasun hori Eskolako taldeetan parte hartzea sustatuz bultzatuko da.

— *Gailendutako ikasleak*:

Aipatutako mailez gain *gailendutako ikasleentzako* maila ere eskaini behar du. Horiek, beren gaitasun, interes eta probetxu berezia erabiliz eta prestakuntza egoki baten bidez, proba bat egin eta kontserbatorioko irakaskuntza arautuen maila ertainean edo goi mailan sar daitezke.



Egin daitezkeen ikasketak

—*Musika Eskolak* ondoko ikasketak eskaini ditzake:

- Kantua (bakarka edo abesbatzan).
- Musika instrumentala eta tradiziozko dantzak.
- Bestelako musika motak: jazz, rock, pop, musika elektronikoa.
- Honako instrumentuak: instrumentua polifonikoak, pianoa, eskusoinua, gitarra, organoa eta klabea.
- Orkestra Sinfonikoko instrumentuak: haria, egurrezko haize-instrumentuak, metalezko haize-instrumentuak eta perkusioa.

—*Dantza Eskolek* ondoko esparruak hartzen dituzte, oinarrizko eskaintza gisa:

- Musika eta mugimendua, lau eta zortzi urte bitarteko haurrentzat.
- Dantza, dantza eszenikoaren edo herri-dantzaren hainbat forma aintzat har ditzakeena.

**5. ARTE PLASTIKOAK ETA
DISEINUA IRAKASKUNTZAREN
INFORMAZIOA**



ZER JAKIN BEHAR DUZU?

Zer dira eta zertarako balio dute Arte Plastikoak eta Diseinuaren irakaskuntzak?

Arte Plastikoen eta Diseinuaren irakaskuntzei dagozkien ikasketen helburua ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea da, irudien, produktuen eta giroen diseinuarekin zerikusia duten ekintzak gauzatu ahal izateko lanbide-kualifikazioa bermatzea, ikasle horiek izango baitira etorkizuneko profesionalak. Hori horrela dago jasota LOGSEn irakaskuntza artistiko guztietarako orokorrean.

Arte Plastikoetan eta Diseinuan sartzen dira Arte Aplikatuekin, Lanbide Artistikoekin, Diseinuarekin (modalitate eta maila guztietan) eta Kultura-ondasunen Kontserbazio eta Berriztapenarekin zerikusia daukaten ikasketak guztiak. Kultura-ondasunen Kontserbazio eta Berriztapen ikasketak eta Diseinu ikasketak unibertsitate-mailako ikasketetan sartzen dira.

Arte Plastikoen eta Diseinuaren irakaskuntzek bi helburu dituzte:

- batetik, *estetikako jakintzak eta praktika artistikoak* transmititzea;
- eta, bestetik, *ofizioak eta lanbideak berritzea*; batzuek historian tradizio handikoak izaki, beharrezkoa da gogoeta estetikoak eta teknologia berriak eskuratzea, gure garaiko premiei erantzun ahal izateko, eta baita etorkizunean kontsumoko ondasunen, zerbitzuen eta ekipamenduen produkzio-eremuetan sortuko diren erronkei aurre egiteko ere.

Diseinua da giltzarri nagusia herrialde baten ekonomi lehiakortasuna hobetzeko, zerikusi handia baitauka enpresako estrategiekin, produktuaren kalitateari eta markari dagokionez, ekoizkinak nazioko nahiz nazioarteko merkatuan lehiakor izan daitezen sustatzeko. Osasunarekin, irakaskuntzarekin, lurralde eta hiri antolamendurekin, garraioekin eta abarrekin zerikusia duten zerbitzuen programaziora sartu da diseinua, eta ondorioz, hain artifizialak, hain degradatuak eta hain erasotzaileak ez diren inguruneak, gizatiarragoak beraz, sortzen dira. Hortaz, ekarpen garrantzitsua egiten zaio gizarte ongizateari.



Nolako egitura dute irakaskuntza hauek?

— *Antolamendua eta hezkuntza-mailak*: Irakaskuntza hauek honela antolatzen dira :

- Heziketa zikloak:
 - Erdi-mailakoak.
 - Goi-mailakoak.
- Goi mailako ikasketak.

Lanbide Heziketari aplikatzen dionaren antzeko egitura erabiltzen du LOGSEk irakaskuntza hauek antolatzeko; izan ere, bi horiek bat datoz hezkuntza-sistema lanbide-munduarekin uztartzeak dakartzan egoera eta arazo guztiei dagokienez. Dena den, irakaskuntza horien osagai artistiko eta plastikoek eta beste elementu jakin batzuek (hala nola, irakaskuntza hauetara sartzeko proba berezia gainditu beharra, eta Titulua atera ahal izateko azken proiektua egin beharra) Lanbide Heziketatik bereizten dute, eta Arte Irakaskuntzetan —Araubide Bereziko Irakaskuntzen barruan— sartu izana azaltzen.

— *Egitura orokorra*: Irakaskuntza hauen egiturak hiru alde edo fase ditu, hala heziketa-zikloetan nola goi-mailako ikasketetan, baina aldi horien iraupena aldatu egiten da, egin beharreko lanen eta burutu beharreko zereginen zailtasunaren arabera.

- Ikastetxean emandako moduluak.
- Enpresa, langela edo lantegietako prestakuntza praktikoa.
- Azken proiektua edo lana.

Nola daude antolatuta Arte Plastikoak eta Diseinua Irakaskuntzak?

— *Heziketa zikloak*:

- *Erdi-mailako heziketa-zikloko ikasketek* prestakuntza ematen dute aukeratutako lanbidearekin zerikusia duten lantze-, burutze- eta zuzeneko parte hartze-zereginetarako. Erdi-mailako heziketa-zikloa gaindituz gero, *Teknikari titulua* eskuratzen da.



- *Goi-mailako heziketa-zikloan* egindako irakaskuntzak, egite edo gauzatze hutsa baino areago doazen zereginak garatu, eta plangintza-, antolaketa-, kontrol-, ikuskapen- eta giza taldeen zuzendaritza-jarduerak gauzatzeko prestakuntza ematen du. *Goi-mailako heziketa-zikloa* amaitzean *Goi-mailako Teknikari titulua* lortzen da.
- *Arte Plastiko eta Diseinuko heziketa-zikloak* lanbide-arloka biltzen dira. Hauek dira gaur egun dauden lanbidearloak:
 - Eskulturako arte aplikatuak.
 - Liburugintza.
 - Hormako arte aplikatuak.
 - Zeramika artistikoa.
 - Diseinu grafikoa.
 - Jantzigintzako arte aplikatuak.
 - Industri diseinua.
 - Barnealdean diseinua.
 - Bitxigintza artistikoa.
 - Esmaltegintza.
 - Ehungintza artistikoa.
 - Beiragintza artistikoa.
 - Lore-arteak.

— *Goi mailako ikasketak:*

Diseinuko goi mailako ikasketen helburua da diseinuaren alorreko profesional kualifikatuak prestatzea, industria-ekoizpenen eta zerbitzuen sorkuntza, garapena, erabilpena eta kontsumoa hobetzeko. Helburu hori erdiesteko, diseinuko goi ikasketek era integratuan garatzen dituzte gaitasun artistikoak, teknologikoak, pedagogikoak eta ikerketakoak. Ikasketa hauek bukatu ondoren Diseinu titulua lortzen da, dagokien espezialitatekoa. Titulo honek unibertsitateko Diplomatura maila dauka, edozein eraginetarako.

— *Goi mailako Diseinu ikasketak espezialitate hauetan eskaintzen dira:*

- Grafikoa.
- Produktuak.
- Barnealdeak.
- Moda.



Diseinuko goi mailako ikasketek, espezialitate bakoitzean, hiru ikasturte hartzen dituzte, eta gainera, karrerako azken proiektua egin behar da: irakas-torduek, guztira, 273 kreditu jotzen dute. Kreditutzat hartzen da jarduera aka-demikoa baloratzeko unitate bat, 10 irakastorduren pareko dena.

Kreditu horietatik 270 ikastetxean bertan egindako prestakuntzari dagozkio, eta gainerako hirurak karrerako azken proiektuaren jarraipen baimenduari.

Karrerako azken proiektua honetan mamituko da: egindako espezialitate-ari dagokion industria-produkzioaren alorrerako jatorrizko diseinu-proiektu bat asmatu eta behar bezala garatzean. Karrerako azken proiektua gainditze-ko, dagokion curriculuma osatzen duten irakasgai guztiak ere gaindituta edu-ki beharko dira. Proiektu hori ikastetxean bertan egin ahal izango da, edo bestela, ikastetxeaz kanpoko tokiren batean, baita diseinu- edo arte-alorretan adituak diren organismo, erakunde, enpresa edo lantegien lankidetzarekin ere. Ildo beretik, honako hauetan ere mamitu daiteke karrerako azken proiektu hori: akademikoki zuzendutako lan profesionalak egitean, edota nazio edo nazioarteko mailako truke-programen baitan egindako beste batzuetan.

Nola hel daiteke irakaskuntza hauetara?

LOGSEK ezarri duenez, dagozkion betebeharrak akademikoak betetzeaz gain, irakaskuntza hauetara sartzeko beharrezkoa izango da dagokion sarbide-proba gainditzea. Sarbide-proba hori espezifikoa izango da, berariazkoa, eta horren bitartez ikasleak egiaztatuko egingo du badituela dagokion heziketa-zikloa atarramentu onez egiteko gaitasunak. Hala ere, eskatutako titulaziorik ez dutenek, baldin eta adinari dagozkion betebeharrak jakin batzuk betetzen badituzte, irakaskuntza hauek egin ditzakete, sarbide-proba gainditu ondoren. Sarbide-proba horrek bi zati ditu: bata, orokorra edo heldutasunari buruzkoa; bestea, berariazkoa edo espezifikoa.

Betebeharrak akademikoak:

- Erdi-mailako zikloa: Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua edo baliokidetzat jotakoak.
- Goi-mailako zikloa: Batxiler-titulua edo beste baliokide batzuk.
- Diseinuko goi-mailako ikasketak: Batxiler titulua edo beste baliokide batzuk.



Era berean, sarbide-proba egitetik libre gera daiteke ikaslea, titulu jakin batzuk baldin baditu. Horretarako, dena den, probarako inskripzio-eskaria egin beharko du, eta frogagiriak aurkeztu beharko ditu.

Sarbide probaren ezaugarriak

Egin nahi den heziketa-zikloaren mailaren edo Diseinuko goi-mailako ikasketen aurreko hezkuntza-etapako curriculumei egokituko zaie proben edukia. Eduki hori, era berean, Arte Plastiko eta Diseinuko lanbide-arloen eta Diseinuko Goi Ikasketen heziketa-zikloetako irakasgaiekin ere egongo da erlazionatuta.

Era berean, sarbide-proba egitetik libre gera daiteke ikaslea, titulu jakin batzuk baldin baditu. Horretarako, dena den, probarako inskripzio-eskaria egin beharko du, eta frogagiriak aurkeztu beharko ditu.

Unibertsitaterako sarbidea, Goi Mailako Heziketa Zikloak egin ondoren

Lanbide heziketako goi-mailako heziketa-zikloetan gertatzen den bezala, Arte Plastiko eta Diseinuko Goi Mailako Teknikariaren tituluarekin ere zuzeneko sarbidea izango duzu Unibertsitatean. Gainera, aukera izango duzu heziketa-zikloan ikasitako ezagupenekin lotutako unibertsitate-ikasketak egiteko, edo, bestela, Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako ikasketak egiteko.

Horretarako, hainbat plaza gordetzen dira unibertsitatean. Lehen zikloko titulu ofiziala eskuratzeko unibertsitate-ikasketak badira, guztira dauden plazen %15 eta %30 bitarteko plaza kopurua gordetzen da goi-mailako heziketa-zikloak egin dituztenentzat. Aitzitik, lehen eta bigarren zikloko titulu ofiziala eskuratzeko unibertsitate-ikasketak badira, plazen %7 eta %15 bitarteko plaza kopurua gordetzen da. Bestalde, Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako ikasketak egiteko, plazen %25 gordetzen da. Gordetako plazak arautu eta esleitzeko, kontuan hartzen da ikasleak egin duen heziketa-zikloaren ikasketak-espeditentean jasotako batez besteko nota.

5 Eranskinen dauzkazu adierazita Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako heziketa-zikloa bukatu ondoren zuzeneko sarbidea duten unibertsitate-ikasketak.

6. HIZKUNTZA IRAKASKUNTZEI BURUZKO INFORMAZIOA



ZER JAKIN BEHAR DUZU?

Zer dira hizkuntza-irakaskuntza ofizialak?

Hizkuntza-eskola ofizialak hizkuntza modernoak helduei irakasteko zentro publikoak dira, unibertsitatez kanpokoak.

Horien helburua da ikasleak prestatu eta gaitzea, hizkuntza komunikazio orokorrerako tresna gisa benetan erabiltzeko moduan egon daitezen.

Helburu horrek berarekin dakar:

- harte- eta produkzio-trebetasun oinarrizkoak eskuratzea, hala ahozko hizkuntzan nola idatzian,
- komunikazio-estrategiak garatzea komunikazioaren zenbait arlotan,
- hizkuntzak era autonomoan eta etengabe ikasteko estrategiak garatzea, hizkuntzaren erabilera errazteko moduan, bai jarduera profesionaletan bai kulturaren edo bakoitzaren intereseko beste alor batzuetan,
- Gaur egungo munduaren hizkuntza-aniztasunari eta kultura-pluralismoari buruzko jarrera positiboak garatzea.

Nolako egitura dute irakaskuntza hauek?

Ikasketa hauek bost kurtso dituzte, guztira, eta kurtso bakoitzak 130 ordu ditu, gutxienez.

Bi ziklotan antolatzen da:

- oinarrizko zikloa: 3 kurtso;
- goi-zikloa: 2 kurtso.

Nortzuk irits daiteke Ziklo horietara?

Ondoko baldintzetakoren bat bete behar da hizkuntza-eskola ofizialetara sartzeko:

- DBHko lehen zikloa egina izatea.
- Eskola Graduatu titulua izatea.
- Eskolatze-ziurtagiria edo lehen ikasketena izatea.



Matrikulazioa

- Ikasleak matrikula ofiziala (eskoletara joateko) edo librea egin dezakete.
- Matrikula ofizialak eskoletara (kurtso bakoitzeko 130 ordu, gutxienez) eta dagozkien azterketetara joateko eskubide ematen du.
- Matrikula hori irailean egiten da (informazio gehiago, hizkuntza-eskoletan).
- Matrikula libreak ondokoetarako eskubidea ematen du: oinarrizko zikloko ziurtagiria edo gaitasun-ziurtagiria eskuratzeko azterketak egiteko. Hizkuntza guztietarako proba libreak ekainean egiten dira. Matrikulazioa otsailean egiten da.
- Ezinezkoa da hizkuntza berean ikasle ofizial eta ikasle libre izatea.

Titulazioa

Bi ziurtagiri ofizial eskuratzeko probak kudeatu eta administratzen dituzte hizkuntza-eskola ofizialek:

- oinarrizko zikloaren ziurtagiria, oinarrizko zikloaren helburuak ziurtatuz,
- gaitasun-agiria, goi-zikloaren helburuak gaindituz gero.

Hizkuntza-eskola ofizialen curriculumak dute erreferente nagusi proba horiek.

Hizkuntza Eskola Ofizialen etorkizuna

Europar Batasunak «Erreferentzia-Marko Europar Bateratua» prestatu du hizkuntzentzat, eta hizkuntza-titulazioak horri egokitu beharko zaizkio, Europar Batasuneko edozein herrialdetan onartu edo aintzatetsiko badira.

«Marko» horretan 6 erreferentzia-maila bateratu ezarri dira:

A Oinarrizko erabiltzailea		B Bere kasako erabiltzailea		C Erabiltzaile gaitua	
A1 Hasierako maila	A2 Bizirauteko maila	B1 Atalase maila	B2 Aurrerapen maila	C1 Eraginkortasun-maila	C2 Beregaitasun-maila



Maila bakoitzean zehatz-mehatz definituta dago hizkuntzaren erabiltzaileak zer ezagutza-maila izan behar duen hizkuntza osatzen duten trebetasunetako bakoitzean: *Irakurmena eta Entzumena eta Idazmena eta Mintzamena*.

2005. eta 2008. urteen artean, hizkuntza-eskoletako irakaskuntza araudi horiei egokituko zaie, eta 3 diploma jarriko dira, ezarritako 3 mailen arabera.

Hizkuntza Eskola Ofizialetan eskura dezakezu informazio gehiago.

- Bilboko HEO. <http://www.eoi-bilbo.net/>
- Getxoko HEO <http://www.eoi-getxo.org/>
- Barakaldoko HEO <http://www.gaztenet.com/eoi/>
- Durangoko HEO <http://www.eoidurango.net/>
- Donostiako HEO <http://www.eidonheo.org/>
- Irungo HEO <http://www.eoirun.com/>
- Eibarko HEO <http://www.eoieibarheo.net/>
- Gasteizko HEO <http://www.eoivitoria-gasteiz.com>

7. HELDUEN HEZKUNTZE EI BURUZKO INFORMAZIOA



ZER JAKIN BEHAR DUZU?

Zer da Helduen Hezkuntza eta zertarako balio du?

Helduen Hezkuntzak oinarrizko hezkuntza eskaintzen du. Hezkuntza-prozesu honetan, beraz, helduak *alfabetatzen* has daitezke, eta *Bigarren Mailako Hezkuntzako graduatua* lor dezakete azkenean.

Helduentzako ikastetxeetan arauz gaindiko hezkuntza-programak ere irakasten dira. Programa horiek ez dakarte titulaziorik. Beren helburua, hauxe: helduen prestakuntza hobetzea eta beren kasa ikasteko eta parte hartzeko gaitasuna garatzea, bai gizartean eta kulturaren, bai lan-munduan.

LOGSEk Helduen Hezkuntzarako zehaztu dituen *helburuak* honoko hauek dira:

- a) Helduek oinarrizko hezkuntza eskuratzea eta eguneratzea, eta hezkuntza-sistemako gainerako mailetara iristen laguntzea.
- b) Helduen lanbide-prestakuntza hobetzea edota beste lanbide batzuetan jardun ahal izateko prestakuntza ematea.
- c) Helduek parte hartzeko gai izatea gizarte, kultura, politika eta ekonomia-bizitzan.

Nola antolatzen da Helduen Hezkuntza?

Helduen Hezkuntzan bi *eratar*a ikas daiteke: eskolara bertara joanda edo urrutitik.

Lehenengoa, Helduen Hezkuntzako ikastetxeetan izaten da, eta bigarrena, berriz, urrutiko irakaskuntza bidez egiten dena, UOHIn (Urrutiko Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxea).

Helduen Hezkuntza *modulu* bidez antolatzen da hiru arlo hauen inguruan:

- Komunikazioa.
- Gizartea.
- Zientzia eta teknologia.



Helduen Hezkuntza hiru fasetan egituratzen da.

Faseak	Definizioa	Iraupena
1. fasea	Alfabetatze-fasea. Hemen lehentasuna ematen zaie heziketa-maila txikiena dutenei. Fase honen helburua, beren alfabetatze funtzionala lortzea da.	<ul style="list-style-type: none">• Lau lauhileko• 640 ordu• 10 ordu astean
2. fasea	Helduen garapen osoa ahalbideratuko duten bitarteko teknikoak eta ezagutzak sendotzeko fasea.	<ul style="list-style-type: none">• Lau lauhileko• 768 ordu• 12 ordu astean
3. fasea	Hezkuntza zabaldu eta sakontzeko fasea. Hemen xedea, Bigarren Mailako Hezkuntzan graduatua eskuratzeko ikasketa aski izatera iristea da.	<ul style="list-style-type: none">• Lau lauhileko• 960 ordu• 15 ordu astean

Jendea fase eta eredurik egokienetan kokatzeko, ordura arte bakoitzak egindako ikasketak hartuko dira kontuan. Horretarako, Helduen Hezkuntzarako ikastetxean hezkuntza-prozesua hasi aurretik ebaluazio bat egingo da.

Nor onartuko da Helduen Hezkuntzan?

Presentziatzeko ereduaren 18 urtetik gorakoak sartuko dira edota matrikula egiten den urte naturalean 18 urte beteko dituztenak. Ez dira onartuko ikasurte hasieran DBHko ikastetxeren batean matrikulatu direnak.

Urrutiko irakaskuntzaz baliatu ahal izango dira, derrigorrezko eskola-adina (16 urte) beteak izanik, Bigarren Mailako Hezkuntzan graduaturik ez dutenek.

Zer dago Helduen Hezkuntzaren ostean?

Bigarren Mailako Hezkuntzan graduatua eskuratu ondoren, batxilergoa edo Erdi Mailako Heziketa-zikloa bultzatzen jarrai daiteke.

8. KIROL IRAKASKUNTZEI BURUZKO INFORMAZIOA



ZER JAKIN BEHAR DUZU?

Zer dira eta zertarako balio dute Kirol Irakaskuntzek?

Entrenatzaileen prestakuntzak tradizio luzea du kirol federazioetan, administrazio publikoen etengabeko sostengua jaso baitute, kirol alorrean eskumena dutenena, batez ere. Prestakuntza-lan etengabe hori zenbait mailatan egin da, hainbat modalitatetan, eta hala bada, espezialitatetan.

Entrenatzaileen gaitasunak edo eskumenak kirol-mota edo -espezialitate-ren bateko irakaskuntzara eta entrenamendura bideratu dira, batez ere, eta, beraz, araututako lehiaketa edo txapelketetan biltzen diren jarduera profesionalak izan dituzte jokaleku. Azken urteotan, ordea, kirol jarduerak garrantzi handia hartu dute, zenbait esparrutan. Ondorioz, entrenatzaileen prestakuntzak kalitate-baldintzak eta zorrotasuna eskatzen ditu, eta funtsezko alderdizat hartuko da etorkizuneko kirol-teknikariak kultura egokia izatea, eta bereziki, bete behar dituen eginkizun eta zereginei lotutako prestakuntza-eduki egokiez jabetzea.

Kirol-irakaskuntzen helburua ikasleei beharrezko prestakuntza ematea izango da, hain zuzen ere:

- a) Kirol-irakaskuntzaren dagokion espezialitatean gaitasun tekniko eta profesionala eta etorkizunean ikasketa gehiago egitera eta kualifikazioen aldatetara egokitzea bultzatuko duen heldutasun profesionala bermatzeko.
- b) Dagokion kirol-modalitatearen ezaugarriak eta antolamendua ulertzeko eta teknikarien funtzioen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak ezagutzeko.
- c) Haien zeregina segurtasun-baldintzetan betetzeko beharrezkoak diren ezagutzak eta trebetasunak eskuratzeko

Nolako egitura dute irakaskuntza hauek?

Titulu ofizialak ateratzeko irakaskuntzek bi maila izango dituzte:

—*Erdi-maila*: prestakuntzaren bidez, dagokion kirol-mota edo -espezialitateko Kirol Teknikari titulua aterako da. Erdiko mailari dagozkion irakaskuntzak, halaber, bi urratsetan antolatuko dira. Lehen urratsaren



helburua izango da ikasleari oinarrizko ezagutzak eta gaikuntza ematea, kirolariei lehiaketa edo txapelketen hastapenak erakutsi eta horretarako zuzendaritza eskaini diezazkien, parte-hartzaileen segurtasuna bermatuz. Bigarren urratsak osatu egingo ditu erdi-mailarako aurrekusi diren prestakuntza-helburuak.

—*Goi-maila*: prestakuntzak dagokion kirol-mota edo -espezialitateko Kirol Teknikari titulua ateratzeko aukera ematen du.

Gaur egun, Futbolari eta Areto-futbolari dagozkion irakaskuntzak ematen dira Erkidego honetan, bai Erdi-mailan (bi urratsetan antolatua) bai Goi-mailan:

Grados de enseñanza		Futbola	Areto-futbola	Titulua
Erdi-maila	I. urratsa	455 ordu	420 ordu	Lehen mailako ziurtagiria
	II. urratsa	565 ordu	555 ordu	Teknikaria
Goi-maila		875 ordu	830 ordu	Goi-teknikaria

Nortzuk egin ditzakete irakaskuntza horiek?

1. Ondoko baldintzak bete beharko dira erdiko mailara sartzeko:

- DBHko graduatua edo baliokidea. 18 urtez gorako pertsonak, titulu hori ez badute, antzeko mailako proba berezi bat gaindituz sar daitezke.
- Sarbide-proba berezia gainditzea. Ezgaitasun edo urritasunak dituzten pertsonentzat ere egokitu daiteke proba hori, probaren helburuen funtsa errespetatuz gero.

Erdi-mailako bigarren urratsera iristeko, lehen urratsa gainditu beharko da.

2. Ondoko hiru baldintzak bete behar dira goi-mailan sartu ahal izateko:

- DBHko graduatua edo baliokidea. 20 urtez gorako pertsonak, titulu hori ez badute, antzeko mailako proba berezi bat gaindituz sar daitezke.
- Kirol teknikariaren titulua (erdiko maila), espezialitate berekoa.



- c) Esperientzia entrenatzaile titular gisa, 2 edo 4 urte bitartekoa, nor-gehiagoka edo txapelketaren araberakoa.
3. Kasu jakin batzuetan, goi-mailako kirolariak salbuetsita egongo dira b) eta c) baldintzetatik.

ERANSKINAK



1. ERANSKINA: UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA

Unibertsitatean sartzeko proba egiteko, hurrengo taulan agertzen diren *unibertsitate azterbideren bat* aukeratu beharko duzu. Hautabide guztiak erlazionatuta daude ikasitako batxilergo-modalitatearekin eta azterbidearen arabera derri gorrez egin beharreko jakintzagaiei buruzko azterketekin.

Unibertsitate Azterbidea	Batxilergoaren Modalitatea
Zientzia eta Teknika — Matematika II eta Fisika — Modalitate-jakintzagai bat	— Teknologia — Natur eta Osasun Zientziak
Osasun-Zientziak — Biologia eta Kimika — Modalitate-jakintzagai bat	— Natur eta Osasun Zientziak
Giza-Zientziak — Latin II eta Artearen Historia — Modalitate-jakintzagai bat	— Giza eta Gizarte Zientziak
Gizarte-Zientziak — Gizarte Zientziei Aplikaturako Matematika II eta Geografia — Modalitate-jakintzagai bat	— Giza eta Gizarte Zientziak
Arteak — Artearen Historia — Marrazketa Artistiko II — Modalitate-jakintzagai bat	— Arteak

Sarbide-probari buruzko hainbat kontu

- a) *Probaren egitura*: Bi ataletan banatzen da. aukeratzeko duzun hizkuntzan egin ditzakezu (*euskaraz edo gazteleraz*).



—*Lehen atala Guztientzako jakintzagaiak.* Lau ariketa izango ditu, bakoitzaren iraupena ordubete eta erdi izanik:

- Historia edo Filosofiari buruzko testu bat aztertzea eta galdera-sorta erantzutea.
- Lehen hizkuntza bezala ikasitako atzerriko hizkuntzari buruzko hainbat galdera aztertu eta erantzutea.
- Euskarazko testu bat eta gaztelerazko beste bat aztertzea eta horiei buruz planteatzen diren galderak erantzutea.
- Erdarazko testu bat eta gaztelerazko beste bat aztertzea eta horiei buruz planteatzen diren galderak erantzutea.

—*Bigarren atala: Modalitate jakintzagaiak* Bigarren kurtsoko modalitateko jakintzagai berezien arteko hiru ikasgairi buruz izango da; derrigorrezkoak bi izango dira unibertsitate azterbidean agertzen direnak¹; hirugarrena, bakoitzak modalitateen arteko aukera libre izango du. (Aurreko orrialdeko grafikoa ikusi):

- Jakintzagai bakoitzeko proba guztietan ariketaren bi eredu egongo dira; bat aukeratu beharko duzu.
- Ikasgai bakoitzak ordu bat eta erdi iraungo du.

- b) *Unibertsitate-hautabide batean baino gehiagotan aurkez zaitzke.* Horrela, lau jakintzagairi buruzko azterketa egin beharko duzu; jakintzagai horiek azterbidearekin lotuta daude. Galdetu zure Ikastetxean.
- c) *Bigarren kurtsoko bigarren hiruhilekoan,* hiru jakintzagairi buruzko azterketak egin beharko dituzu, hau da, jakintzagaiak izango dira aukeratu duzun azterbidearekin lotutakoak eta zuk seinalatu behar duzuna.
- d) *Batxilergoko batez besteko nota.* Honela kalkulatzen da: bi kurtsoko ikasgaien azken kalifikazioak batu eta eragiketa horren emaitza bi kurtsoen ikasgaien kopuruarekin zatitzen da. (Erlijioa/Antolatutako Hezkuntza Jarduera kenduta. Gorputz-ekintza, aisia eta osasuna bai).
- e) *Musika edo Dantza Batxilergoko ikasleentzako sarbide-proba:* Musika edo Dantza Batxilergoa dutenek, baldin eta unibertsitatean sartzeko proba egin nahi badute, modalitate batetik egin behar dute, berek aukeratua. Probaren bigarren zatian, azterbideari lotutako nahitaezko bi jakintzagai-ri buruzko azterketa baino ez dute egingo, eta ez hirugarrenari buruzkoa.

¹ Azterbideetako edozeinetan aukeratzen diren modalitate-jakintzagaiak Batxilergoko 2. mailako jakintzagaiak izango dira beti.



2. ERANSKINA: UNIBERTSITATE-IKASKETAK HASTE-KO LEHENTASUNAK, SARBIDE PROBAN EGINDAKO AZTERBIDEAREN ARABERA

	UNIBERTSITATE-AZTERBIDEA					
	UPV/EHUan irakasten diren ikasketak	Zientzia eta Teknika	Osasunaren Zientziak	Giza Zientziak	Gizarte Zientziak	Arteak
UNIBERTSITATE IKASKETAK (A): ARKITEKTOA (A.T.): ARKITEKTO TEKNIKOA (D): DIPLOMATUA (I): INGENIARIA (I.T.): INGENIARI TEKNIKOA (L): LIZENTZIATUA						
AERONAUTIKAN I. T.: AEROMOTOREAK BEREZ. (I.T.)		•	•			
AERONAUTIKAN I. T.: AERONAUTIKA BEREZ. (I.T.)		•	•			
AERONAUTIKAN I. T.: AIREONTZIA BEREZ. (I.T.)		•	•			
AERONAUTIKAN I. T.: AIREPORTUAK BEREZ. (I.T.)		•	•			
AERONAUTIKAN I. T.: EKIPO ETA MATERIAL AEROESP. (I.T)		•	•			
AKTUARITZA ETA FINANTZA ZIENTZIAK (L) (2. ZIKLOA)	X					
ALBAITARITZA (L)			•			
ALEMANIAR FILOLOGIA (L)	X			•		
ARABIAZ FILOLOGIA (L)				•		
ARIKETA FISIKOKO ETA KIROLAREN ZIENTZIAK (L)	X	•	•	•	•	•
ARKITEKTURA (A)	X	•	•			
ARKITEKTURA TEKNIKOA (A.T.)	X	•	•			
ARTE EDERRAK (L)	X	•	•	•	•	•
ARTEAREN HISTORIA (L)	X			•	•	•
BASOETAN I.T.: BASO-HUSTIAPENAK BEREZ. (I.T.)		•	•			
BASOETAN I.T.: BASO-INDUSTRIAK BEREZ. (I.T.)		•	•			
BILBIOTEKONOMIA ETA DOKUMENTAZIOA (D)		•	•	•	•	•
BIDE, KANAL ETA PORTUETAKO INGENIARIA (I)		•	•			
BIOKIMIA (L) (2. ZIKLOA)	X					
BIOLOGIA (L)	X	•	•			
BIOTEKNOLOGIA (L)		•	•			
DOKUMENTAZIOA (L) (2. ZIKLOA)						
EKIALDEKO ASIARI BURUZKO GAIAK (L) (2. ZIKLOA)						
EKONOMIA (L)	X	•	•		•	
ELEKTRONIKAN INGENIARIA (I) (2. ZIKLOA)	X					
ELIKAGAIEN ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA (L) (2. ZIKLOA)	X					
ENOLOGIA (L) (2. ZIKLOA)						



UNIBETSITATE IKASKETAK (A): ARKITEKTOA (A.T.): ARKITEKTO TEKNIKOA (D): DIPLOMATUA (I): INGENIARIA (I.T.): INGENIARI TEKNIKOA (L): LIZENTZIATUA	UNIBERTSITATE-AZTERBIDEA					
	UPV/EHUan irakasten diren ikasketak	Zientzia eta Teknika	Osasunaren Zientziak	Giza Zientziak	Gizarte Zientziak	Artea
ENPRESA ADMINISTRAZIOA ETA ZUZENDARITZA (L)	X	•	•		•	
ENPRESA ZIENTZIAK (D)	X	•	•		•	
ERIZAINNTZA (D)	X		•			
ESLAVIAR FILOLOGIA (L)				•		
ESTADISTIKA (D)		•			•	
ESTADISTIKA-TEKNIKAK ETA ZIENTZIAK (L) (2. ZIKLOA)						
EUSKAL FILOLOGIA (L)	X			•		
FARMAZIA (L)	X		•			
FILOLOGIA ERROMANIKOA (L)				•		
FILOLOGIA KLASIKOA (L)	X			•		
FILOSOFIA (L)	X	•	•	•	•	•
FISIKA (L)	X	•	•			
FISIOTERAPIA (D)			•			
FRANTSES FILOLOGIA (L)	X			•		
GALIZIAR FILOLOGIA (L)				•		
GEODESIA ETA KARTOGRAFIA INGENIARIA (L) (2. ZIKLOA)						
GEOGRAFIA (L)	X	•	•	•	•	•
GEOLOGIA (L)	X	•	•			
GESTIO ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOA (D)		•	•	•	•	•
GESTIOAREN INFORMATIKAN I. T. (I.T.)	X	•	•			
GIZA ELIKADURA ETA DIETETIKA (D)	X		•			
GIZA ZIENTZIAK (L)		•	•	•	•	•
GIZARTE ETA KULTUR ANTROPOLOGIA (L) (2. ZIKLOA)	X					
GIZARTE HEZKUNTZA (D)	X	•	•	•	•	•
GIZARTE LANA (D)	X	•	•	•	•	•
HEBRAITAR FILOLOGIA (L)				•		
HISPANIAR FILOLOGIA (L)	X			•		
HISTORIA (L)	X			•	•	•
HIZKUNTZALARITZA (L) (2.ZIKLOA)						



.../...

UNIBETSITATE IKASKETAK (A): ARKITEKTOA (A.T.): ARKITEKTO TEKNIKOA (D): DIPLOMATUA (I): INGENIARIA (I.T.): INGENIARI TEKNIKOA (L): LIZENTZIATUA	UNIBERTSITATE-AZTERBIDEA					
	UPV/EHUan irakasten diren ikasketak	Zientzia eta Teknika	Osasunaren Zientziak	Giza Zientziak	Gizarte Zientziak	Arteak
IKUSENTZUNEZKO KOMUNIKAZIOA (L)	X	•	•	•	•	•
INDUSTRIA ANTOLAKUNTZAN INGENIARIA (I) (2. ZIKLOA)	X					
IND. AUTOMATIKA ETA ELEKTRONIKAN ING. (I) (2. ZIKLOA)	X					
INDUSTRIA DISEINUAN I. T. (I.T.)		•			•	•
INDUSTRIA INGENIARIA (I)	X	•	•			
INDUSTRIA I.T.: EHUNGINTZA BEREZ. (I.T.)		•	•			
INDUSTRIA I. T.: ELEKTRIZITATEA BEREZ. (I.T.)	X	•	•			
INDUSTRIA I. T.: INDUSTRIA ELEKTRONIKA BEREZ. (I.T.)	X	•	•			
INDUSTRIA I. T.: INDUSTRIA KIMIKA BEREZ. (I.T.)	X	•	•			
INDUSTRIA I. T.: MEKANIKA BEREZ. (I.T.)	X	•	•			
INFORMATIKAN INGENIARIA (I)	X	•	•			
INGELES FILOLOGIA (L)	X			•		
INGENIARI AERONAUTIKOA (I)		•	•			
INGENIARI KIMIKOA (I)	X	•	•			
INGURUGIRO ZIENTZIAK (L)	X	•	•			
IRAKASLEA: ATZERRIKO HIZKUNTZA BEREZITASUNA (D)	X	•	•	•	•	•
IRAKASLEA: ENTZUMEN ETA MINTZAMENA BEREZ. (D)		•	•	•	•	•
IRAKASLEA: HAUR HEZIKETA BEREZITASUNA (D)	X	•	•	•	•	•
IRAKASLEA: HEZIKETA BEREZIA BEREZITASUNA (D)	X	•	•	•	•	•
IRAKASLEA: HEZIKETA FISIKOA BEREZITASUNA (D)	X	•	•	•	•	•
IRAKASLEA: LEHENENGO MAILAKO HEZIKETA BEREZ. (D)	X	•	•	•	•	•
IRAKASLEA: MUSIKA HEZIKETA BEREZITASUNA (D)	X	•	•	•	•	•
ITALIAR FILOLOGIA (L)				•		
ITSASONTZIETAN INGENIARIA (I)		•	•			
ITSAONTZI INGENIARIA ETA OZEANIKOA (I)		•	•			
ITSASONTZIETAN I. T.: ITSAS EGITURAK BEREZ. (I.T.)		•	•			
ITSASONTZIETAN I. T.: ITASONT. PROPUL. ETA ZER. BEREZ. (I.T.)		•	•			
ITSASONTZIETAKO IRRATIELEKTRONIKA (D)		•	•			
ITSASONTZIETAKO IRRATIELEKTRONIKA (L) (2. ZIKLOA)						



	UNIBERTSITATE-AZTERBIDEA					
UNIBERTSITATE IKASKETAK (A): ARKITEKTOA (A.T.): ARKITEKTO TEKNIKOA (D): DIPLOMATUA (I): INGENIARIA (I.T.): INGENIARI TEKNIKOA (L): LIZENTZIATUA	UPV/EHUan irakasten diren ikasketak	Zientzia eta Teknika	Osasunaren Zientziak	Giza Zientziak	Gizarte Zientziak	Arteak
ITSASONTZI MAKINAK (D)	X	•	•			
ITSASONTZI MAKINAK (L) (2. ZIKLOA)	X					
ITSAS NABIGAZIOA (D)	X	•	•			
ITSAS ZIENTZIAK (L)		•	•			
ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOA (L)	X	•	•	•	•	•
KATALUNIAR FILOLOGIA (L)				•		
KAZETARITZA (L)	X	•	•	•	•	•
KIMIKA (L)	X	•	•			
KRIMINOLOGIA (L) (2. ZIKLOA)						
LAN HARREMANAK (D)	X	•	•	•	•	•
LAN PUBLIKOETAN I.T.: ERAIKUNTZA ZIBILAK BEREZ. (I.T.)	X	•	•			
LAN PUBLIKOETAN I. T.: HIDROLOGIA BEREZ (I.T.)		•	•			
LAN PUBLIKOETAN I. T.: HIRI-GARRA. ETA ZERBIT. BEREZ) (I.T.)	X	•	•			
LANBIDE-TERAPIA (D)		•	•	•	•	•
LITERATUR TEORIA ETA LIT. GONBARATUA (L) (2. ZIKLOA)						
LOGOPEDIA (D)		•	•	•	•	•
MATEMATIKA (L)	X	•	•			
MATERIALEN INGENIARIA (I) (2. ZIKLOA)	X					
MEATZE INGENIARIA (I)		•	•			
MEATZE I. T.: E. BALIABIDE, ERREG. ETA LEHER. BEREZ (I.T.)	X	•	•			
MEATZE I.T.: MEATZE ZUND. ETA PROSPEKZ. BEREZ. (I.T.)		•	•			
MEATZE I.T.: MEATZE JARTZAP. ELEKTRO-MEKA. BEREZ. (I.T.)		•	•			
MEATZE I.T.: MEATZEEN HUSTIAKUNTZAN BEREZ. (I.T.)	X	•	•			
MEATZE I.T.: MINERALURGIA ETA METALURGIA BEREZ. (I.T.)	X	•	•			
MEDIKUNTZA (L)	X	•				
MENDI INGENIARIA (I)		•	•			
MERKATU-IKERKETA TEKNIKETAKO ING. (L) (2. ZIKLOA)	X					
MUSIKAREN HISTORIA ETA ZIENTZIAK (L) (2. ZIKLOA)						
NAUTIKA ETA ITSAS GARRAIOA (L) (2. ZIKLOA)	X					

.../...



.../...

UNIBETSITATE IKASKETAK (A): ARKITEKTOA (A.T.): ARKITEKTO TEKNIKO (D): DIPLOMATUA (I): INGENIARIA (I.T.): INGENIARI TEKNIKO (L): LIZENTZIATUA	UNIBERTSITATE-AZTERBIDEA					
	UPV/EHUan irakasten diren ikasketak	Zientzia eta Teknika	Osasunaren Zientziak	Giza Zientziak	Gizarte Zientziak	Arteak
NEKAZARITZAN I. T.: BARATZE-FRUTAZ. ETA LOREZ. BEREZ. (I.T.)		•	•			
NEKAZARITZAN I. T.: BASERRI-MEK. ETA ERAIKUNT. BER. (I.T.)		•	•			
NEKAZARITZAN I.T.: NEKAZ. ETA ABELT. HUSTIRAKUNTZA BEREZ. (I.T.)		•	•			
NEKAZARITZAN I.T.: NEKAZAL ETA ELIKAGAIEN INDUS. BEREZ (I.T.)		•	•			
NEKAZARITZAN INGENIARIA (I)		•	•			
ODONTOLOGIA (L)	X		•			
OPTIKA ETA OPTOMETRIA (D)		•	•			
PEDAGOGIA (L)	X	•	•	•	•	•
PODOLOGIA (D)			•			
POLITIKA- ZIENTZIAK ETA ADMINISTRAZIOARENAK (L)	X	•	•	•	•	•
PORTUGALDAR FILOLOGIA (L)				•		
PSIKOLOGIA (L)	X	•	•	•	•	•
PSICOPEDAGOGIA (L) (2. ZIKLOA)	X					
PUBLIZITATEA ETA HARREMAN PUBLIKOAK (L)	X	•	•	•	•	•
SISTEMEN INFORMATIKAKO ING. T. (I.T.)	X	•	•			
SOZIOLOGIA (L)	X	•	•	•	•	•
TELEKOMUNIKAZIO INGENIARIA (I)	X	•	•			
TELEKOMUNIKAZIO I. T.: SOINU ETA IRUDIA BEREZ. (I.T.)		•	•			
TELEKOMUNIKAZIOAN I. T.: SISTEMA ELEKTRONIKAKO BEREZ) (I.T.)		•	•			
TELEKOMUNIKAZIOAN I. T.: TELEK. SISTEMAK BEREZ. (I.T.)	X	•	•			
TELEKOMUNIKAZIOAN I. T.: TELEMATIKA BERZ. (I.T.)	X	•	•			
TOPOGRAFIAKO ING. T. (I.T.)	X	•				
TURISMO-ENPRESA ETA IHARDUERETARAKOTEKNIKA (D)		•	•	•	•	•
ZUZENBIDEA (L)	X	•	•	•	•	•



3. ERANSKINA: GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOETAN IKASLEAK ONARTZEKO IRIZPIDEAK

Goi mailako Prestakuntza Ziklo bat hasteko ikasleen eskabide plaza baino gehiago izatekotan, honako lehentasun irizpide hauek kontutan izango dira:

1. Goi mailako Prestakuntza Ziklo bakoitzari dagokion Batxilergo modalitatea, ondoko koadroan 3. zutabean datozenak edo baliokidetzat harzen diren mailak.
2. Ikasketa-espeditentean ondoren datorren bi hauek kontuan izango dira:
 - a) Batezbesteko nota, dezimal batekin.
 - b) Batxilergo jakintzagaiak, 4. zutabean datozenak kurtsatuta izanda.

LANBIDE ARLOA	GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK	BATXILERGOKO MODALITATEAK	BATXILERGOKO JAKINTZAGAIAK
ADMINISTRAZIOA	Administrazioa eta finantzak	—Giza eta Gizarte Zientziak —Natur eta Osasun Zientziak	—Ekonomia eta Enpresa-Antolaketa
	Idazkaritza	—Giza eta Gizarte Zientziak —Natur eta Osasun Zientziak	—Ekonomia eta Enpresa-Antolaketa
ARTE GRAFIKOAK	Argitalpen diseinua eta produkzioa	—Arteak —Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Marrazketa Teknikoa
	Arte grafikoaren industrietako produkzioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Industri Teknologia II
BEIRA ETA ZERAMIKA	Zeramika produktuen garapen eta fabrikazioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Kimika
	Beirazko produktuen fabrikazioa eta transformazioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Kimika

.../...



.../...

LANBIDE ARLOA	GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK	BATXILERGOKO MODALITATEAK	BATXILERGOKO JAKINTZAGAIAK
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	Larru zurraketak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Kimika
	Patroigintza	—Arteak —Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Marrazketa Teknikoa
	Jantzigintza industrialeko prozesuak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Marrazketa Teknikoa
	Ehunak hobetzeko prozesuak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Kimika
	Harien eta zulo bordatuzko ehunen produkzioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Industri Teknologia II
	Puntuzko ehunen ehungintza prozesuak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Industri Teknologia II
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	Produktu elektronikoen garapena	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Elektroteknia
	Instalazio elektroteknikoak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Elektroteknia
	Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Elektroteknia
	Telekomunikabide eta informatika sistemak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Elektroteknia
ELIKAGAIEN INDUSTRIAK	Elikagaien industriak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Kimika
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILAK	Hirigintza proiektuen garapena eta topografia	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Marrazketa Teknikoa
	Eraikuntza proiektuen garapena eta aplikazioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Marrazketa Teknikoa —Mekanika
	Obra burutzapen eta planak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Marrazketa Teknikoa



LANBIDE ARLOA	GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK	BATXILERGOKO MODALITATEAK	BATXILERGOKO JAKINTZAGAIAK
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK	Gizarte eta kultur animazioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak —Teknologia	
	Haur hezkuntza	—Batxilergoko edozein modalitate	
	Zeinu mintzairaren interpretazioa	—Batxilergoko edozein modalitate	
	Gizarte integrazioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak —Teknologia	
GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK	Gorputz eta kirol ekintzen animazioa	—Batxilergoko edozein modalitate	
IBILGAILU AUTOPROPULTSATUEN MANTENIMENDUA	Automozioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Elektroteknia —Mekanika
	Mantenimendu aeromekanikoa	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Elektroteknia —Mekanika
	Abionikako mantenimendua	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Elektroteknia
INFORMATIKA	Informatika sistemen administrazioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak —Teknologia	
	Informatika aplikazioen garapena	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak —Teknologia	
IRUDI PERTSONALA	Irudi pertsonalaren aholkularitza	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak	
	Estetika	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak	—Biologia

.../...



.../...

LANBIDE ARLOA	GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK	BATXILERGOKO MODALITATEAK	BATXILERGOKO JAKINTZAGAIK
ITSASOKO ETA ARRANTZAKO JARDUERAK	Nabigazio, arrantza eta itsas-garraioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Marrazketa Teknikoa
	Akuikultura arloko produkzioa	—Natur eta Osasun Zientziak	—Biologia
	Itsasuntziko makinaren eta instalazioen ikuskapena eta kontrola	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Elektroteknia
KIMIKA	Analisi eta kontrola	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Kimika
	Produktu farmazeutikoen eta antzekoen fabrikazioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Kimika
	Orearen eta paperaren prozesu industriak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Kimika
	Prozesu kimikoen industriak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Kimika
	Plastikoak eta Kautxua	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Kimika
	Ingurugiro Kimika	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Kimika
KOMUNIKAZIOA, IRUDIA ETA SOINUA	Irudia	—Arteak —Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Fisika
	Ikus-entzunezko, irrati eta ikuskitzunen produkzioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak —Teknologia	—Ekonomia eta Enpresa Antolaketa
	Ikus-entzunezkoen eta ikuskitzunen errealizazioa	—Arteak —Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Fisika
	Soinua	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Fisika



LANBIDE ARLOA	GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK	BATXILERGOKO MODALITATEAK	BATXILERGOKO JAKINTZAGAIAK
MEKANIZAZIO BIDEZKO PRODUKZIOA	Metal eraikuntzak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Marrazketa Teknikoa —Mekanika
	Proiektu mekanikoen garapena	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Marrazketa Teknikoa —Industri Teknologia II
	Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Industri Teknologia II
	Mekanika bidezko mekanizazioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Industri Teknologia II
MERKATARITZA ETA MARKETINA	Nazioarteko merkataritza	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak	—Ekonomia eta Enpresa-Antolaketa
	Merkataritza kudeaketa eta marketinga	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak	—Ekonomia eta Enpresa-Antolaketa
	Garraioaren kudeaketa	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak	—Ekonomia eta Enpresa Antolaketa
	Kontsumitzailearentzako zerbitzuak	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak	—Ekonomia eta Enpresa Antolaketa
NEKAZARITZA ETA ABERE HAZKUNTZA	Nekazaritza eta abere hazkuntzako enpresen kudeaketa eta antolamendua	—Natur eta Osasun Zientziak	—Lur eta Ingurugiro Zientziak
	Natur eta paisaia baliabideen kudeaketa eta antolamendua	—Natur eta Osasun Zientziak	—Lur eta Ingurugiro Zientziak

.../...



.../...

LANBIDE ARLOA	GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK	BATXILERGOKO MODALITATEAK	BATXILERGOKO JAKINTZAGAIK
OSASUNGINTZA	Anatomia patologikoa eta zitologia	—Natur eta Osasun Zientziak	—Biologia
	Dietetika	—Natur eta Osasun Zientziak	—Biologia
	Osasun dokumentazioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak	
	Aho eta hortzen higieena	—Natur eta Osasun Zientziak	—Biologia
	Diagnosirako irudia	—Natur eta Osasun Zientziak	
	Diagnosi klinikoko laborategia	—Natur eta Osasun Zientziak	—Biologia
	Ortoprotesika	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Marrazketa Teknikoa
	Hortz protesiak	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	
	Erradioterapia	—Natur eta Osasun Zientziak	
	Audioprotesia	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Fisika.
	Ingurugiro osasuna	—Natur eta Osasun Zientziak	—Lur eta Ingurugiro Zientziak



LANBIDE ARLOA	GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK	BATXILERGOKO MODALITATEAK	BATXILERGOKO JAKINTZAGAIAK
OSTALARITZA ETA TURISMOA	Errestaurazioa	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak	
	Alojamendua	—Natur eta Osasun Zientziak —Giza eta Gizarte Zientziak	
	Bidai agentziak	—Giza eta Gizarte Zientziak	—Geografia
	Informazio eta merkaturatze turistikoa	—Arteak —Giza eta Gizarte Zientziak	—Artearen Historia
	Sustapen turistikoa	—Arteak —Giza eta Gizarte Zientziak	—Bigarren Atzerriko Hizkuntza
PRODUKZIO ZERBITZUA ETA MANTENIMENDUA	Fluido, bero eta mantenimendu instalazioen proiektuen garapena	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Industri Teknologia II
	Industri ekipoen mantenimendua	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Industri Teknologia II
	Eraikin eta prozesu instalazioen mantenimendua eta muntadura	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Industri Teknologia II
ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA	Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena	—Arteak —Teknologia	—Marrazketa Teknikoa
	Zurgintza eta altzarigintza	—Natur eta Osasun Zientziak —Teknologia	—Industri Teknologia II

